



ARGIA

BASERRIA ZAMA BIHURTZEN DENEAN

TABUA HAUTSI ETA NEKAZARI BERRIEI ATEAK IREKI

PASCUAL SERRANO: "GEZURRETAN ARI DEN HEDABIDEARI EZ ZAIO ERANTZUKIZUNIK ESKATZEN"

LEHEN HIZKUNTZAREN GARRANTZIA BURUKO GAITZAK DIAGNOSTIKATZEKO

NET HURBIL: NOLA PENTSATZEN DU IPAR KOREAK AUZI NUKLEARRAZ

ESTIU 1993: UDA HONETAKO ZINEMA SORPRESA KATALUNIAK ETORRI DA





HAUTATZEN DAKITENENTZAT

KRONIKAK, ANALISIAK, JOERAK, INFOGRAFIAK...

Eskura ezazu!

☎ 943 371 545 • www.argia.eus/denda • denda@argia.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: AEB-Ipar Korea, krisi nuklearraren atarian

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Anuntxi Arana
- 19 Rosa María Martín Sabarís Itxaro Borda



Hedabideen orainaz eta geroaz hitz egin dugu Pascual Serrano espainiar kazetariarekin. (ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA: MARINA SAGASTIZABAL
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Ricardo Gómez: "Euskara arkaikoa aztertzeak hizkuntzari buruzko interes intelektuala asetzen du" / Miel A. Elustondo
- 20 | Zer egingo dugu baserriarekin? / Itziar Ugarte Irizar
- 25 | Aniztasun funtzionala duten emakumeak: "Gu gara gure bizitzetako protagonistak" / Ilazki Gainza Giraldo
- 28 | Pascual Serrano: "Internetek ez du informazioa demokratizatu, desinformazioa baino" / Jabi Zabala
- 32 | Leire Erkoreka: "Ikerketek diote sintoma psikotikoak larriago adierazten direla ama hizkuntzan" / Onintza Irureta Azkune
- 34 | 1947ko uholdea: Goizuetan lainoa lehertzen duenean... / Iñaki Sanz-Azkue
- 42 | Biba errepublika / Itxaro Borda
- 44 | Zabaltegi berriz aurkitu du bere bidea / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 46 | Estiu 1993: Urteko sorpresa Kataluniatik etorri da / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industriadela, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



RIANO
OLEM
PAU,
VENDRE
MES

Biolentzia, bakea bezalatsu, zerbaiten ondorioa da

Kataluniako erasoen ostean, batasun abstrakturako eta –inork ezagutzen ez dituen– Mendebaldeko baloreen defentsarako deiek estali nahi izan dute jihadismo globalari buruzko eztabaida. Sakoneko azterketa saihestu nahian, testuingururik gabeko kontakizun apolitiko eta sentsazionalista ezarri nahi izan dute agintari gehienek eta menpeko hedabideek; Rambletan edo Ripollen gertatutakoa zerutik eroritako zerbait bailitzan. Zorionez, Bartzelonako “Ez dugu beldurrik” manifestazioak galdera interesgarriagoak ekarri ditu: zein da arazoa kudeatzeko ardura izan dutenen jardunaren emaitza? Negozioak giza eskubideen gainetik al daude? Espainiako errejimenak –baita Barcelona FC-k ere– Saudi Arabia eta Qatar diktadura wahabistekin dituen lotura ekonomiko eta politikoez hitz egitea ez da eztabaida desbideratzea, guztiz kontrakoa baizik.

Argazkia: Sònia Pau (El Punt Avui) · Testua: Axier Lopez



t “Adi! Ertzaintzak Hontzak-eko dekorazioko ‘Jesukristoa’ lapurtu egin du, kristauak ‘mintzeagatik’. Nazionalkatolizismoa XXI. mendean”

@kskgorri

t “Zuzenbide estatu akonfesionala? Hontzak txosnatik ‘biraoak’ kentzeko agindu zuen epaileak, inongo argudiorik gabe”

@josemanuelferra

t “Bada ordua ezkerretik esateko, konplexurik gabe, Hontzakekoa ez dela adierazpen askatasuna ez laikotasuna, kultura demokratiko gutxi baizik”

@larreina

t “Ez dezagun aniztasunez jantzi fundamentalismo erlijiosoa dena. Ezkerrean edozein aniztasun ez da izan behar ongi etorria. #laikotasuna”

@Zuriro



SMILEY.TOERIST

Larrunen turismo masiboa sustatuko ote duten beldur

Mikel Asurmendi

@masurmendi

Larrun 2020 egitasmoa Larrungo trenaren ingurumaria berritzeko proiektua da. Azkaine, Sara, Urruña eta Bera herrien magalean ez dago giro. Proiektuak eztabaida zalapartatsua eragin du. Larrun Ez Hunki kolektiboa eratu da egitasmoaren aurka. Bi asmo kontrajarriak jalgi dira Larrungo Trenaren geroari buruzko egitasmoa gauzatzeko unean. Nehork ez du zalantzan jartzen berau berritu beharra. Usaia mesfidantza zabaldu da ordea, proiektua kudeatzen duen Frantziako Estatuko instituzioen eta tokiko hainbat herritarren artean. Bigarren hauek “natura errespetatuz, Larrun mendia babestu nahi dugu” diote.

Berrikuntza lanen gibelean “beste zerbait” dagoela adierazi du Larrun Ez Hunki kolektiboko Ellande Alfarak: “Jean-Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako Departamenduko lehendakariarekin bildu ginen egunean eraberritze lanez harago, beste xede bat antzeman genuen, instituzioek turismoaren eredua berritu nahi dute gure ustez. Gu egungo arazoak konpontzeko elkarlan bat sustatzearekin ados gaude, baina hizketa gaia natura errespetatzeko eredua da, ez instituzioen proiektua nola gauzatu behar den eztabaidatzea”. Instituzioek Larrun mendiaren inguruko herrien “batasun faltsua” zaldu izana kritikatu du Larrun ez Hunki Kolektiboak. Egitasmoaren gibelean “atrakzio parke bat” gauzatzeko asmoa begitandu zaie. Dirua nondik datorren ere ez omen da argi eta garbi ageri.

“Ez gatoz lanean hiltzera; soldata duin bat irabaztera gatoz”

JON LARRINAGA, FUMBARRIKO ENPRESA BATZORDEKO PRESIDENTEA

Lan istripuan hildako lankidearen familiari elkartasuna eta babesa adierazi dio Larrinagak. Euskal Herrian aurtan lan istripuz 40 behargin hil direla ere gogoratu du. “Ez gatoz lanean hiltzera; soldata duin bat irabaztera gatoz”, azpimarratu du Enpresa Komiteko presidentek. “Fumbarriko zuzendaritzari eskatzen diogu prebentzio neurriak har ditzala eta ahal den arinen neurri guztiak ipini ditzala hau argitzeko, beste lekuetara eta instituzioetara ere helarazteko”. **ANBOTO (2017-08-21)**



FAUNA PUBLIKOA

"Hainbestekoa da konexioa, bat egiten dutela eusko nazi estiloko orrazkeran ere".

**Gloria Vazquez,
Zarauzko parekidetasun zinegotzia**

(Anna Gabriel CUPeko parlamentariaren orrazkeraz, Facebook-en)

Iletik tiraka



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Prezio ona edukiko du "nazi" hitzak deskalkifikazio politikoaren ferian, bestela ez da ententitzen hainbeste jendeak erabiltzea. Igual du zein den eztabaidagaia, kezka handirik ez orrazkera bezain gauza hutsala jartzeko zenbait milioi pertsona hil zituen partiduaren pare. Kontua da, merkezu-rreko merkantziak ez direla fidatzekoak izaten, eta Zarauzko parekidetasun zinegotzia den Gloria Vazquezi eskuetan lehertu zaiola *reductio ad hitlerum* globo hau, batek baino gehiagok galdetu duenean, ez arrazoi gutxiz, ea zer ari den emakumeen eskubideen alde lan egiteko dagoen hautetsia beste emakume baten ilearen kontura barrez. Txof. Zipriztin biralak. PSEko kidea ekaitz marroien erdian.

Ai, sare sozialak: Goebbelsek kargatzen ditu. Edo haren estilistak.

Egiazki, Vazquezi pasa zaiona edozeini gertatzen ahal zaio, zeren aspertuta zaude sofán Jorge Javier *ídem*-i begira, baina ez daukazu lotarako gogorik, eta politikari baten deklarazioak ikusten dituzu, horrek motibatzen zaitu "atsegin dut" erraz batzuk lortzeko hura digitalki larrutzeroa, eta ez duzu asko pentsatzen pijama jantzita daukazun arren, telefonoaren beste aldean espezie ugarietako fauna publikoa ari dela irakurtzen. Edozeinek ez dauka ordea partidu politiko bat, modu horretan kakaztu duzuna estaliko duena espantuka salatuz zure aurkako "jazarpen kanpaina" bat, iritsi dena, adi egon, "irain pertsonaleraino" -*nota bene*: Vazquezek "nazi" idatzi zuen, baina kariñoarekin-.

Bueltaka dabil kontua abuztu hasieratik, zinegotziak hanka sartu zuela onartzen ez duelako. Umekeria politikoaren terrenoan sailkatuko litzateke, umek ere ardura handiagoz jotzen dutela jakingo ez bagenu. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ATENTATUEK
PROZESU SUBIRANISTAN
ERAGIN DEZAKETE?



ADUR

ANALISIA



Faxismoaren beldur barik



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: ÁLVARO MONGE / EL PERIÓDICO

No tinc por atera zitzaion eztaeritik Bartzelonon herritar bati. Deiadarra sentiendu askoren katalizatzaila izateaz gain, bizi dugun garai nahasien isla ere bada. Polanyik arrazoi ote? Merkatu librearen eta sistema kapitalistaren ezinarekin, pixkanaka badoaz ideia baztertzailak leku egiten, badator berriz ere piztia, faxismoa.

AEBetako Charlottesvilleen supremazistekin jazotakoak agerian utzi du zenbat aurpegi izan ditzakeen. Milaka lagun KKK eta neonaziekin batera argi-zuziak piztuta *Blood and soil* oihukatzen, 30eko hamarkadako billura hitleriarra bailitza. Virginia-ko herritar askoren erantzuna berehalakoa izan da; baina Heather Hayler aktibista antifaxistaren hilketaren aurrean Trumpek Unite the Right korrante ultraeskuindarra-rikiko izandako jarrera epelak erakusten du haren eragina norainokoa den. Arrazismo konfederatua goraiatzatzen duten 1.500 monumentu daude Estatu Batuetan, hau hasi besterik ez da egin.

Bartzelonan, sarraski jihadistaren ostean Falangeak eta beste hainbat talde ultrak "Europaren islamizazioaren kontra" elkarretaratu nahi izan zuten; mugimendu antifaxistak *No Passaran* esan zuen ozen eta ez zion utzi piztiari bere hatzaparrak hirian paratzen: "Ez gaituzte beldurtuko, ez gaituzte bananduko, ez diegu utziko askatasun gehiago kentzen", zioen Endavant erakunde politikoak.

Euskal Herrian ere erreakzio xenofobo eta faxistak –txanpon beraren bi alde-ugaritu dira aspaldion. Fiteron hiru marrokoar egurtu zituzten erradikal islamofoboe; Gasteizen eta Oionen meskiten eta sinboloen kontrako pintadak azaldu dira; Bilboko Artxandan gerran hildakoak oroitzeko monumentuari eraso dio Falangeak: "Fusilatu sindugusen eta ostabe ingo be" dio euskara garbian mezuak.

Faxismoak ez du hizkuntzarik ezagutzen eta gutxien esperotako tokian egon daiteke ezkutatuta. Zurrumurru bat, etorkinek jasotzen duten diru-laguntzei buruzko komentarioa, sareko txio hura... "Haiek" eta "gu" banatzeko ideia totalitaristak nagusitzen direnean agertzen da beldurra, tresna boteretsu hori. Eta orduan, poliziek pertsona susmagarri bat prebentiboki tiroz hiltzen dutenean isildu egiten gara badaezpada ere.

¿*Qué hicimos aquí con el 36?* (Zer egin genuen hemen 36arekin?) liburua aurkeztu du Balbino García de Albizu historialari eta gerrako fusilatuen bilobak, Ameskoako erretagoardian izandako errepresioaz eta bertako herritarren inplikazioaz. "Galdetu beharko genuke ea zergatik ez ziren kanpotik etorri behar izan hemen ezarri genuen errepresiorako. Hemen erabaki genuen zeinek, noiz eta zenbat ordaindu behar izan zuen *afecto* ez izateagatik", dio egileak. Ez dugu kanpora begiratu behar. Zeren eta agian, etorkizun batean geure bilobek ere galdetu beharko dute hemen zer egin genuen XXI. mendeko faxismoarekin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Oporretako ameskeria



Juan Mari Arregi

Uda honetan jazotako hainbat gertaerek aditzera eman dezakete kasik mundu guztiak izan ditzakeela oporrak eta egin dezakeela turismoa. Eredu turistiko honen kontrako kanpainen, jendez lepo dauden aireportu eta geltokietako irudiek, hirien traza hartu duten hondartzek... hori pentsatzera garamatzate. Eta gainera, gisa horretan beste mezu bat ere zabaldu da: krisi ekonomikoa gainditzeko ari garela. Baina errealitatea egoskorra da, eta datu estatistiko ofizialek gezurtatu egiten dute.

Egia da milioika lagun mugitzen direla eta gozatzen dutela oporraldiez turismoa egiten. Bai, baina biztanleriaren zati txiki bat baino ez dira, eta ia beti pertsona berak dira udako, Gabonetako edo Aste Santuko atsedendialdiak izan ditzaketanak. Askoz gehiago dira langabezia, pobrezia, gosea eta bazterkeria soziala sufritzen dutenak. Agintean dagoen sistema kapitalistak sorturiko desoreken ondorioa da. Europar Batasuneko hiru herritarretik batek, %32,9ak, ez zuen aukerarik izan 2016an astebeteko oporraldia ere hartzeko, are gutxiago bera bizi den tokitik kanpo, Eurostat estatistikarako bulego komunitarioaren arabera. Espainiako Estatuaren kasuan %40,3ak eta Frantziakoaren %23,4ak. Populazio horren artean miseriazko nominak dituzten pentsionistak, emakume langabetuak, gurasoen etxean bizi diren bikotekideak, langile prekarioak eta immigranteak daude.

Zenbaki handietako ekonomia, enpresa handi eta multinazionalena hobetzen ari ei da, Burtsaren mundu birtualaren gisan. Enplegu prekarioaren eta izoztutako pentsioen bizkar, haatik. Azken batean, egungo sistema kapitalistak sortu duen desoreka estrukturalaren beste ondorio bat da hau. Oporraldi eta turismoaren kontua ameskeria baino ez da. Krisiak jarraitzen du betikoak zigortzen.



CARLOS ALIPIO

Ezohiko ke-emisioak Petronorren

MUSKIZ. Petronorren Muskizko koke plantako konpresore bat ustekabeen gelditu da eta horren eraginez gas kopuru handia bota du hirugarren tximiniatik, herritar ugariren kezka eraginez. “Segurtasun arrazoiak” aipatu ditu enpresak; baieztatu dutenez, koke planta ez da gelditu inolako momentutan, nahiz eta karga txikiagoarekin lan egin duen. Meatzaldea Bizirik talde ekologistarentzat, azken gertakariak bistan utzi du herritarren “osasuna eta segurtasuna jokoan” dagoela.

Kaleratzeak Stop taldeko sei kideri isuna

Axier Lopez

@axierL

Iazko irailean Anastasia eta bere bi semeak etxegabetu zituen Ertzaintzak, Alokabide Eusko Jaurkitzaileen sozietate publikoak hala aginduta. Etxegabetea eragozteko protestan parte hartu zuten Arabako Kaleratzeak Stop taldeko sei kideri 602 euroko isun bana ezarri diete orain, Mozal Legea aplikatuz.

Kaleratzea

Anastasia eta bere bi semeek Gasteizen etxebizitza uzteko agindu zuen Alokabidek, ezin zutelako alokairua ordaindu. Egindako presioari esker, egun berean Gasteizko Udalak familiari harrera pisu bat eskaini zion.

Mozal Legea

Elkartasun ekimenetik 11 hilabetera, 602 euroko isun bana heldu zaie han ziren Arabako Kaleratzeak Stop taldeko sei kideri. “Poliziarren lana oztopatzea” zigortzen duen Mozal Legearen artikulua baliatu du Ertzaintzak.

Erantzuna

“Errudun ote garen epaitegi batek ebatzi beharko luke, baina Mozal Legearen bidez zigortutakoak gara gure errugabetasuna frogatu behar dugunok”, dio taldeak. Ez dute isuna ordainduko eta helegitea aurkeztuko dute.

UGALKETA



%50

egin du behera Mendebaldeko gizonen esperma kalitateak 40 urtean: zehazki, espermatozoiden dentsitatea eta kopurua erdira murriztu dira, dio ikerketa batek.

137,5

milioi espermatozoide ditu batez beste gizon mendebaldarraren eiakulazioak; 1973an 337,3 milioi zituen.



HARMAILA

Euskarazko kirol aldizkari berria abian da: “Ikusle begiez, zaletu begiez, kirolari begiez egina dago *Harmaila*. Pasioa eta analisia uztartzen saiatuko gara, eta dena euskara hutsean”.



ERRESISTENTZIA

Getxoko Ibarbengoa eremua sei urtez landu du Tosu Betirako mugimenduak eta Udalak aparkalekua egitea eragozteko hainbat ekintza eta kanpaldi egin ditu bertan. Irailean kaleratuko dituztela aurreikusi eta “Erresistentzia Akanpada” deitu du abuztuaren 31n, “obra gelditzeko”.



KURDISTAN

Iraketik banandu eta estatu propioa sortzeko Hego Kurdistanek egingo duen erreferendumaren aurka azaldu da Kurdistan Langileen Alderdia (PKK), “kurduak ez dutelako estaturik behar”. Konfederalismo Demokratikoa defendatzen dute orain.

Trump eta Kimek nola ekarri gaituzten gerra nuklearraren atariraino



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Ez zaie jaramonik egin behar Ipar Koreako diktadura barregarri uzten duten irudiei: herrialde txikiaren eta munduko potentzia nagusiaren arteko tirabirak 2017ko udan mundua eraman dute krisi atomiko larri baten ateetara. 1962an Kubako misilen krisian AEBek eta Sobietar Batasunak gerra atomikoa ia piztu zutenetik ez omen da hain egora arriskutsua bizi izan. Udazkena iristear, ez da ikusten nola baretu Ekialde urruneko sute arriskutsua.



Donald Trumpek Hiroshima eta Nagasakiren bonbaketaren urteurren eguna hautatu du mehatxatzeko Ipar Korea “sekula ikusi ez den bezalako suz eta haserrez” atakatzearekin, horrela erakutsiz, froga gehiagoren berririk baldin bazegoen, AEBetako lehendakariaren harrokeria eta buru arina. Beste aldetik, Kim Jong-un buruzagi ipar-korearraren handikeria eta inkontzientziak mundu guztia dauka zainetan. Okerrena gertatuko dela ezin da esan segurtasunez, baina hitzezko eskalada bilaka daiteke gatazka hilgarri edozein gertakizun txikiren poderioz. Mehatxuek eta propagandak ez dute sekula bakerik ekarri. Hobe litzateke errealitatetik abiatuturik negoziatzea.

Martine Bulardek hitz horiekin laburbildu zuen uda hasieran AEBen eta Ipar Korearen arteko mehatxu nuklear beroa *Le Monde Diplomatique*n. Bularden analisisan, Ipar Koreak bonba atomikoan bilatu du bere bizi aseguru atzeritarren eta batez ere iparramerikarren esku hartzeen kontra. Iraki edo Libiari gertatu zaiena erabil dezake frogatzat. Piongiangek bere larruan Koreako Gerran (1950-1953) probatua du zenbaterainokoa den AEBen su ahalmena eta ziurtzat dauka Iran ez baldin badute orain artean Mendebaldeko tropek inbaditu hori lortu duela bere programa nuklearrari esker.

Kontua ez da, oraingo lehendakariaren aitonaren edo aitaren garaietan bezala, plangintza militarra negoziatzea

janarien truke. Kim Jong-unek uste du Hego Korea den senide-etsaia Washingtonen morroiegi dela politika autonomik edukitzeko, horregatik zuzenean negoziatu nahi du AEBekin aintzat hartu dezaten. Ez ahaztu gerra 1953an armistizio batez bukatu zen arren, oraindik bake itunik ez dela bien artean.

Begi guztiek Txinari begiratzen diote, Ipar Korearekiko auzo nagusia delako, baina tentuz jokatu beharra dauka. Nazio Batuen Erakundean zigor ekonomiko berriak bozkatu direnean berak ere baiezeko botoa eman duen arren, gero neurriak halako malgutasun batekin aplikatzen ditu. Koreako penintsula nuklearizatzea ez zaio interesatzen, besteren artean AEBek misil eta tropa gehiago hurbiltzea dakarrelako –lehendik txinatarrei itogarria zaien hesi militarra gogorragotuz–. Piongiangi bizimodua zailtzetik ere ez zaio komeni, errefuxiatu korear mordoa ekarriko liokeelako mugako eskualdeetara, lehendik korearrez gainezka dauzkanetara.

Maiatzean gatazka beraz idatzi zuen Philippe Pons kazetariak, berrikitan *Corée du Nord. Un État-guérilla en mutation* liburua plazaratu duenak. Ponsen “Piongiangen arrazionalitatea” analisisa irakurtzekoa da, hedabide nagusiek Ipar Koreaz ematen diguten irudi barregarria gaindituz hango agintarien logika ulertzen saiatzeko, diktadura haren lau-dorioetan erori barik.

1950-1953ko gerra hilkorren ostean –milioi erditik gora militar eta 2,5

milioi zibil hilik, erdia baino gehiago iparraldekoak– Ipar Korea berriro erasotzeko aukerak behin baino gehiagotan aztertu dituzte yankiek. Azken aldiz 1994an, Koreako Herri Errepublika plutonia ekoizten ari zela jakin zenean, Clinton lehendakariaren aginte aldian. Gerra azken unean saihestu zuen James Carter lehendakari ohiak Piongiangera egindako bisitak.

Piongiangen logika ulertu

Gaur Donald Trumpek aurpegiatzen dio Barack Obamari ezer lortu ez izana bere politika epelekin eta munduari agintzen dio korearrak sartuko dituela arrastoan jipoi eder bat emanik. Ponsen aburuz, AEBetako agintariak ezikusia egin diete Piongiangek arma nuklearra eskuratzeko zeukan logika ulertzeari.

Ipar Koreako agintariak, dio Ponsen, ulertu zuten beren burua bakar-bakarrik babestu beharko zutela eta horretarako 80ko hamarkadan abiatu zuten Sobietar Batasunaren laguntzarekin programa nuklear zibil bat, gero erabilera militarra bideratu zutena, sekretuki. Sobiet Batasuna hondoratzeak eta Txinaren eboluzioarekin are mehatxatuagoa sentituz, Piongiangek plan nuklearra sendotu zuen, oraingoan Pakistanen laguntzarekin. “Amerikarrek Afganistanen, Iraken eta, geroago, Sirian eraso zutenean, horrek are gehiago konbentzitu ditu ipar korearrak: arma nuklearraren jabe izatea dutela patu bera ez nozitzeko berme bakarra”.



'Chinland Today' hedabideak zabalduko irudian, Ipar Koreako militarrek aurtengo Eguzkiaren Egunean Piongiangen burutu desfilean bomba atomikoa eramateko gai diren misilak erakusten. Guam uhartea erasotzeko mehatxua egin dute, handik iparramerikarrek bidalitako hegazkin bonbaketarien hegaldiak eteten ez badira. Askoz hurbilago, 40 km eskasera daukate Hego Korearen hiriburu Seoul.

1994an bi aldeek lortu zuten akordioa, korearren plutonio ekoizpena abandonaturik zigor ekonomikoak kendu eta Mendebaldeak nuklear zibilentzako zenbait hornidura ematearen truke. Baina yankiek ez zuten beren hitza bete, korearrek hain gutxi. 2002rako ituna haizeak eramana zuen, eta George W. Bushen espero baldin bazuen korearrak itotzea, alderantzizkoa gertatu zitzaion: 2006an burutu zuten lehenbiziko leherketa atomikoa, eta ondoren beste lau edo bost gehiago.

Gauden lekura iritsita, "erregimenarentzako suizidioa litzateke arma atomikoari uko egitea: ezingo luke justifikatu defentsako gastuei lehentasuna emateko urteotan herritarrei beren bizimoduaren kaltetan jasanarazitako sakrifizio guztia, baina gainera kanpoko eraso baten aurrean zaugarri geratuko

litzateke, Irak bezala". Piongiango erregimenak, dio Ponsek, zoro eta irrazionaltzat jotzen den arren, lerro politiko jakin bati jarraitzen dio aspalditik eta eten gabe: ahalegintzen da potentzia burujabetzat onartu dezaten, arma atomikoa eskuratzen, nazioarteko ezagutza –baita Washingtonena ere– lortzen, hondamendi ekonomikotik ateratzen sakoneko erreformekin, planifikazioa eta ekimen pribatua uztartzen dituzten sektoreak antolatuz, Piongiang etxe horratzez eta merkatal gunez hornituz... eta bide batez barne oposiziorik ñimiñoena ere –honetan ez da erreformarik Ipar Korean– suntsituz.

Txinak asmatuko ote du bitartekari lanetan? Pekingo agintariei ez die graziaz egiten Ipar Koreak bomba atomikoa edukitzeak, baina buruko min larria lukete AEBek bertan gerra piztuko ba-

lute: lehendik handia den yankien presentzia areagotu, milaka edo milioika errefuxiatu berri ate joka... eta –logika ororen arabera ipar korearrak lirakeenez galtzaile– Korea osoa Seulen mende geratzea, hau da, Ipar Korea den isolatzailea galtzea AEBko militarren aurrean aurrean.

The Global Times hedabide txinatarak honela zehaztu du Pekingo gobernuaren jarrera: "Korea baldin bada lehena misilak jaurtitzen AEBen lurraldearen kontra eta AEBek erantzuten baldin badute, Txinak neutraltasunari eutsiko dio gerran. Alabaina, AEB eta Hego Korea hasten baldin badira prebentziozko erasoekin eta Ipar Koreako erregimena eraisten penintsula korearreko eredu politikoa aldatzeko, Txinak ez die utziko". Ez egin barre korearrei, benetan ari dira eta. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Ricardo Gómez, filologoa

«Euskara arkaikoa aztertzeak hizkuntzari buruzko interes intelektuala asetzeko balio du»

Horra irakasle atsegina euskararen gramatikaz mintzo, honetaz eta hartaz, orain baino lehen duela bi, hiru eta lau mende gure Astarloak, Zabalak, Larramendik eta bestek esan zituztenak aztergai. Filologo petoa lanean, ikasle gazteak treba daitezen, interes intelektuala izan dezaten.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Bilbotarra, Euskal Filologia ikasketak Gasteizen egina.

Seminario zaharrean. 1987an ikasketak bukatu, eta fakultate berri honetan ginen hurrengo urtean. Koldo Mitxelena eskolen atzetik etorri nintzen Gasteiza, baina hura beti ari zen eskolak maila bat goragoan ematen. Inoiz ez nuen irakasle izan. Laugarren mailan nengoela erretiratu zen, eta bukatu nituen urtean hil zen. Nahiago nukeen eskolak eman izan balizkit. Beragatik etorri nintzen ni hona, neurri batean, bederen.

Zer esan nahi du “neurri batean”?

Deustun bizi nintzela, eta eskuera nuela hango unibertsitatara joatea. Baina Koldo Mitxelena hemen ari zen irakasle, eta nik harekin nahi nuen. Hasteko, euskararen militantziak jarri ninduen Euskal Filologia egiteko bidean. Hala ere, garai hartan Etnografia ikasketak egin nahi nituen, Deustuko Bihotz Alai dantza taldean ari nintzen, txistua ere jo nuen geroago. Giro horretan, Etnografia ikasi nahi nuen, baina, horretarako, gertuen, Parisera joan behar zen. Eta frantsesa ikasi, eta ez nekien frantsesik.

Zertan zen Deustuko Bihotz Alai talde hura?

Hara baino lehen, 14 urte nik, San Ignazio auzoko Goierri dantza taldean ibili nintzen. Bizpahiru urte han egin eta Deustukora jo genuen Goierriko zenbait adiskidek. Bihotz Alain ziren dantzak erakusten Josu Larrinaga, Edorta Ialdebere eta besteren batzuk, eta txistularietan, adibidez, Josu Urrutia eta Alex Iribar; bigarrena Deustuko unibertsitateko irakaslea gaur egun. Bihotz Alairen egitasmoa zen dantza jakin batzuk berreskuratzea. Ni sartu aurretik, esate baterako, Lakuntzako dantzak berreskuratu zituzten. Folklore jatorra zen hango asmoa, ez oraingo berrikuntzak, dantza jatorrari aire modernoak eman eta halakoak. Ez, dantzak herriak egiten zituen moduan jasotzea eta dantzatzea zen helburua. Ez dakit harrezkero gauzak aldatu diren.

Dantzari zinen, dantzarako ezindua orain. Noizdanik?

Dantzarako zailtasunak, betidanik. Jaioztatikoa dut gaixotasuna eta txikitatik izan ditut eskailerak igotzeko zailtasunak, korrika egiteko. Hala ere, dantza jakin batzuk egin behar eta moldatzen

nintzen. Baina berehala ikusi nuen ezin nuela gainerako dantzarien erritmoa jarraitu eta, orduan, dantza utzi eta txistua hartu nuen. Kar, kar...

Noiz diagnostikatu zizuten gaitza?

Txikitan, noiz izan zen ez badakit ere. Gurasoek kontatua dakit. Nonbait, Madrileraino joan ginen, La Paz ospitalera, eta hantxe diagnostikoa: gerri distro-

Ricardo Gómez López

Bilbo, 1964

Goierri eta Bihotz Alai dantza taldeetan ibilia gaztetan, euskara ikasia, gau-eskoletan irakasle izana Bilbon eta Gasteizen, Euskal Filologia ikasketak egina. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da gaur egun, Gasteizko Letren fakultatean. Euskal Filologian doktore da, XIX. mendeko euskal letren eta hizkuntz ideiei buruz tesia eginik, Beñat Oihartzabalen gidaritzapean. Monumenta Linguae Vasconum ikerketa taldeko kide da.



fia, beso-hanketako giharren distrofia. Gaitz progresiboa da.

Bi makuluren gainean zinen duela hogeit urte.

Makulurik ez dut inoiz erabili nik. Batek baino gehiagok esaten dit, baina oker zaudete. Jendearen laguntza bai, behar izan dut hona edo hara heltzeko, inoren besotik helduta ikusiko ninduzuen, badaezpada, inork nahigabe bultza eta eror ez nedin. Baina bi makuluren gainean ez naiz ibili ni. Azkenean, errazago mugitze aldera, aulkia hartu nuen.

Zer moduz moldatzen zara hesi arkitektoniko artean? Iruñetik, Xanti Begiristainek behin eta berriz eta askotan salatu izan ditu hesiok.

Zorionez, gero eta hesi gutxiago daude, nahiz eta oraindik badauden. Hala ere, hesi arkitektonikoei dagokienez, Gasteiz paradisua da. Hainbat taberna eta dendatan arazoak ditut oraindik, baina gainerakoan, erraz Gasteizen.

Unibertsitatean eskolak emateko ere erraz?

Arazorik gabe. Garai batean, arbela besterik ez zenean, idatzi egin nahi eta zailtasunak. Gaur egun, pantaila eskueran dugunez, ordenagailuan idatzi eta pantaila baliatzen dut. Eskolak emateko eragozpenik ez dut.

Tesia egiten ari zinela ez zenerabilen aulkirik.

Bukatu nuenean bai.

Luze jo ohi du doktore tesiak, horratik.

Nire kasuan, tesia egiten ari nintzela gaia aldatzea erabaki nuen, eta horrek are gehiago luzatu zuen epea. Erronkarierari buruz hasi nintzen ikertzen, erronkarierazko testu guztiak bildu, aztertut eta editatzea zen nire asmoa. Hasi nintzen, baina eskolak ere eman behar nituen, urtetik urtera irakasgaia aldatzen zidaten, gai berria prestatu beharrean ni beti, eta egoera hartan ezin tesia aurreratu. Bestalde, erronkarierari buruz ikerketan hasi eta Bonaparteren lanekin egin nuen topo berehala. Haren hizkuntza ideiak aztertzen hasi nintzen, besteak beste, eta nire lehen artikulua, luzea, izan zen emaitza. Horrela, bata dela, bestea dela, tesiaren gaia aldatzea erabaki nuen, eta hizkuntzaren historio-grafiara jotzea.

“XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak”, zure tesiaren izenburua.

XIX. mendeko gramatikariek euskara nola deskribatu zuten aztertut nuen. Asko interesatzen zait aztertzea nola moldatu ziren gramatikari zaharrak euskara latinaren eta inguruko hizkuntza indoeuoparren ereduaren arabera deskribatzen. Hain hizkuntza ezberdinak izanik euskara eta indoeuoparrak! Eredu horren egokitzapena, besteak beste, euskararen kasu-sistemari edo euskal aditzari dagokionean. XVII. eta XVIII. mendeetan ere gramatikariek arazoak izan zituzten euskara deskribatzeko, baina XIX. mendean saltsa handiagoa dago, teoria eta autore gehiago.

Hizkuntza ideiei dagokienez, Astarloa eta Juan Mateo Zabala aztertut zenituen, adibidez.

Juan Mateo Zabala, tesia egin ondoren, batez ere. Adibidez, Zabalak Astarloaren *Apología [de la lengua Bascongada]* lana ezagutzen du, baina ez egile beraren *Discursos filosóficos*, Astarloaren lan nagusia eta bere hizkuntza ideiak benetan garatzen dituen lana, askoz geroago argitaratua delako. Zabalak, orduan, Astarloaren arabera jokatu ezin zuenean, Larramendirengana jo zuen.

Zer du Larramendik, euskararen historia berriaz ari eta beti hain presente?

Sekulako iraultza egin zuelako. Kultur euskara ekarri zuen Larramendik. Iparraldean baziren zenbait lan eginak, baina Hegoalde hau nahiko basamortua zen, horrela esaterik baldin bada, go, behintzat, zerbait ere bazegoen-eta. Larramendik euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi izan zuen, eta horretarako egin zituen bere lanak –apologia, gramatika, hiztegia eta beste–, eta jendeak kasu egin zion, idazleek kasu egin zioten, jarraipena izan zuen, eta eragina. Hortik sortu zen literatura gipuzkera eta, neurri batean, literatura bizkaiera, Añibarro, Mogel eta gainerakoek Larramendiri jarraitu baitzioten. Iraultza ekarri zuen Larramendik.

Hark asmatuak dira gaur egunean hitzean eta hortzean erabiltzen ditugun zenbait hitz. “Garrantzi”, esate baterako.

Larramendiren hitz gutxi geratu zaizkigu, gero Sabino Aranaren uholdea etorri zelako. Aranarentzat etsaia da



Larramendi, hau espainola delako. Aranarena ez da borroka linguistiko hutsa –hori ere bai, baditu-eta bere gramatika ideiak–, baina Larramendiren hitzak ezabatu egin nahi ditu. Bi gauzak nahastu dira hor: *Eskutitz*, *garrantzi* eta halakoren batzuek gaur arte iraun dute baina gehienak errekar bota zituzten Aranek eta aranatarrek.

Jakingarria dirudi borroka horrek, interesgarria.

Ikasleei ez zaie, bada, askorik interesatzen. Kar, kar... Ikasleetan motibazio falta handia nabaritzen dugu, gure inguruko kulturaren ezagutza txikia, eta irakurtzeko gogo are txikiagoa. Unibertsitatera iritsi eta ez dute euskal literatura klasikorik irakurri. Karrera hasita, irakasleek aginduta irakurtzen dituzten pasarteak izan ezik, ezer ez dute iraku-



rriko. Larramendi aipatu, Axular... eta gehienek ez dakite nor izan diren ere.

Zergatik ote motibazio falta hori?

Ni Euskal Filologian ari naiz –Euskal Ikasketak du izena orain–, eta dakidan txoa esan nezake. Gure ikasleetan askok filologia ez beste aukeraren bat egina dute lehenengo. Ikasketa haiek egin ezinda geratu eta hasi dira filologian. Batzuk ez dira letrak ikasitakoak ere, zientziak baizik. Hala ere, bertsoarritza gustatzen zaie, edo idaztea, edo euskaltzaleak dira, eta hirugarren edo laugarren aukera izanagatik ere, filologiara etortzen zaizkigu.

Euskaraz hitz egiten dute zuen ikasle horiek?

Bai, dudarik gabe. Korridoreetan, euren artean, nekez egingo dute gaztelaniaz.

Kasu bat ezagutu dut, ikasle batena, salbuespen hutsa.

Hitz beste egin gabe, oraingo ikasle gazteen motibazioa, eta zeurea gazte zinenean... Euskaldunberri –zaharra–, zaitugu. Zein girotan egosi zen zure euskaltzaleatasuna?

Ez dakit gauza nola sortu zen ere, 1978ko giroa izango zen, beharbada. Ama EAJkoa zen, eta gurasoen lagun batzuk ere bai. 14 urterekin, gurasoen lagun batek irakatsi zigun zerbait. Ikasleetan ginen ama, gurasoen lagun horren emaztea, ni neu, eta ez dakit han besterik zegoen. Irakasle lanak egiten zituen etxeko lagun hura euskaldun jatorra zen, baina ez irakasle trebatua. Borondate handia genuen, hori bai, eta ahal genuen moduan jardun genuen. Hori eta gero, berehala sartu nintzen

Irakaslearen oporrak

“Maiatzaren bigarren, hirugarren astean amaitzen dira orain eskolak. Ordutik aurrera zoramena da: azterketak, ikasleen lanak, gradu amaierakoak, masterrekoak... Nire kasuan, aurten, doktorego tesia zuzentzea ere izan da eta, beraz, irakasleok hiru hilabeteko oporrak izaten ditugun kontua aspaldi bukatu zen”.

Bologna

“Bolognak lan gehiago ekarri digu ikasle-irakasleoi. Tartekako lan gehiago eskatzen du Bolognak, dena azken azterketarako utzi gabe: azterketa partzialak, jendaurreko aurkezpenak, idatzizko lanak... Ikasleek lan gehiago, eta irakasleok ere bai, lanok ebaluatu, zuzendu eta prestatu behar ditugulako. Bolognak ondo funtzionatzeko nahitaezko da talde txikiak antolatzea, hogeik ikaslekoak gehienez”.

San Ignazioko gau-eskolan. Han Iñaki Antigüedad izan nuen irakasle. Pila bat ikasi nuen berarekin. Harekin bi urte eta, 16 urte nituela, udan, ikastaro trinkoa eman zidan Juanjo Larreak. Laster nintzen eskolak ematen San Ignazioko gau-eskolan. Baina gauzak aldatu ziren Gasteiza etorri nintzenean Filologia ikastera, eskolak arratsaldez baitziren. Orduan, Santutxuko gau-eskolara jo nuen, Karmelora, eskolak ematera.

Goizez gau-eskolan irakasle Bilboko Santutxun, bazkalandoan ikasle Gasteizen.

Oso nekagarria zen: San Inaziotik Santutxura joan, eskola eman, itzuli, korrika eta presaka bazkaldu, Gasteiza etortzeko autobusa hartu, unibertsitatea... Urte bat eta nahikoa. 1984an, hirugarren mailan, hona etorri nintzen, eta AEK-n hasi nintzen eskolak ematen. Gero IKA izan zen.

Euskal Filologia ikasketak amaitu eta doktorego tesia egin zenuen Beñat Oihartzabalek zuzendurik. Oraindik orain, berriz, besteren tesia zuzendu duzu estreinakoz. Urtzi Regueroren “Goi nafarrera arkaiko eta zaharra”.

Lehen tesia zuzendu dut, bai, eta ondo atera da. Epaimahaiak gogo onez irakurri zuen, ohar jakingarriak egin zituzten, ez azalekoak, eta oso ondo. Doktoregaiarena izan da lana, nik zenbait gauza antolatzen lagundu diot, bibliografia osatzen, eta erredakzioa bera zuzentzen, denok baitugu joera gauza asko jakintzat emateko, baina beti ez izan horrela. Urtzik lana egin, eta ohi denez, epaimahaiak zorionak bioi! Kar, kar...

Zertan laguntzen digu euskara arkaikoak, Artaxoan agertutako esaldi, ezkontza-fede eta gainerakoak egunera ekartzeak?

Euskara salbatzeko, esan nahi duzu? Kar, kar... Horretarako ez. Baina hizkuntzari buruzko interes intelektuala asetzeko bai, eta baita gaurko euskara

Azken hitza: FiloBlogia

Dozena urte ere badarama Ricardo Gómezek bloga idazten filoblogia.blogariak.net-en. Euskarari eta hizkuntzalaritzari dagozkion makina bat gai interesgarri irakurri ditugu bertan, nahiz eta bateko twitter eta besteko facebook bestelako albisteak ere irakurgai diren blogean. Hots handirik gabe, Ricardo Gómezek esan diguna: “Jendeak irakurtzen duen neurrian, ondo dago bloga, bestelako asmorik gabe”.

hobeto ezagutzeko ere. Beste hizkuntza guztietan egiten da: hizkuntzaren historia eta bilakabidea aztertu, testu zaharrak analizatu... Euskara salbatzeko, hizkuntza arkaikoa aztertzeak ez du balio, baina, izan ere, hizkuntza bat salbatzeko ez dago modu automatiko eta berehalakorik.

Inor ezeren salbamenduaz ari bada, esan nahi du...

Arriskuan dagoela.

Desagertzeko arriskuan da euskara?

Oraindik badu arrisku puntu bat. Batzuetan optimistegiak gara. Iku-si egin behar gazteak zenbateraino dakien, eta zenbateraino erabiltzen duen. Inkestak hor dira, eta emaitzak beti dira, gutxienez, kezkarriak. Euskara ez da berehalakoan hilko, hori ere ez, baina ez dut ikusten geroa erabat ziurtatua, behin eta betiko salbatua. Inguruko hizkuntzak oso indartsuak dira. Gaztelaniarena ezagutzen dugu hemen, baina Iparraldean, frantzesaren pisua ikaragarria da.

Bitartean, zertan dira euskararen gaineko azterketak?

Gauza interesgarriak egiten ari dira, aurreratzen. Nik ezagutzen dudak diakroniaren arloan, azken aldian aurkeztu diren tesiek horixe frogatzen dute: Céline Mounole, Julen Manterola, Koldo Ulibarri, Jabier Etxagibel, Manu Padilla, Urtzi Reguero... testu zaharrak aztertzen, argitaratzen... Monumenta Linguae Vasconum taldean ari dira denak, lan ona, edo oso ona, egiten. ■

Euskara helduentzat!

- Urrats guztiak
- Ordutegi zabalak
- Mintzamina
- Azterketak prestatzeko ikastaroak eta barnetegiak
- Autoikaskuntza
- Dirulaguntzak eta deskontuak
- Kultura ekitaldiak...

Gabriel Aresti
euskaltegia

Bilbo erdian

MATRIKULA ZABALIK

www.gabrielaresti.com

Etorkinak balira...

Uztailaren 31n, Kataluniako *El Periódico*-n: “Hogeita hamar urteko senegaldar bat hil da borrokaldi batean. Hiru norbanakok eraso dute kalean egun argitsuaren. Biktimak droga trafikoagatik aurrekariak zituenenez, bali-teke hori izatea erasoaren zioa”.

Albistean, kazetariak lehenengo paragrafoan kontatzen du erasotzaileek “nazionalitate espainiarra” dutela. Hala-koetan komeniko litzateke, biktimaren jatorriari garrantzi gehiago eman izanaren arrazoia ezagutzea eta horren efektuaz hausnartzea.

Abuztuaren 1ean. *La Vanguardia*-n: “Salouko hilketaren erasotzaileetako bat atxilotu dute”. Hirugarren paragrafoan: “Biktimak hamar urte zeraman Saloun bizitzen, Carles Büigas etorbide ezagunaren inguruko lokaletan ibili ohi zen; hezibide oneko pertsona lasaia deskribatu dute bertakoek. Hala ere, beste iturrien arabera, droga-trapi-txeoan jarduten omen zuen”.

Orain, imajina ezazu albiste hauetako protagonista, hau da, biktima, emakumea dela. Argi dago trataera desagokia dela, ezta? Eraiketa matxistei dagokionean, feministak etengabe kritikatzeko ditugun joerak errepikatzen dira: “Hil dute” esan ordez, “hil da” esatea; auzokoen (aurre) iritziei pisua ematea (“pertsona jatorra/normala/ lasaia zen”); biktimari errua botatzea (kasu honetan droga trafikoan zebilela nabarmenduz), edota albistea “gertakari” bezala definitzea.

Kasu honetan, nahiz eta biktima beltza eta erasotzaileak txuriak izan, arrazakerian oinarritutako gorroto delitua izan daitekeela ez da inondik inora aipatzen.

Rosa Cobo soziologia irakasle feministaren artikulua bat publikatu genuen *Pikaran* hiru egun lehenago, uztailaren 28an. *Sanferminetan* hainbat gizon lelo matxistez janzten edota apaintzen direnez, haxe idatzi zuen: “Ez da ulertzen



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Espainiako Estatuan zein autonomia erkidego askotan emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako legediak garatu dira. Euskal Herriko mugimendu feministak lortu du jai esparruetan sexu indarkeria ikustaraztea eta horren kontrako protokolo eta kanpaina ugari garatzea. Eraso arrazista eta LGTBfobikoak, ordea, ezkutuan mantentzen dira

Nafarroako Fiskaltzaren erantzuna [deliturik ez ikustea, alegia]. Txapa eta kamisetan erabiltzaileak historikoki zapal dutako beste taldeak balira, juduak, beltzak edo etorkinak, erantzuna zein ote litzake jakin nahiko nuke”.

Feministen ahotan maiz entzuten dut honelako baieztapena: “Urtero 60 hilketa arrazista edo homofobo gertatuko balira, gizarteak eta instituzioek ez zuten onartuko”. Logika horrek ezjakintasun galanta adierazten du. Ez al dakite migrazio legedia eta politika xenofoboaren ondorioz askoz ere pertsona gehiago hiltzen direla Europako kostetan? Benetan uste al dute Espainian zein Frantzian gorroto delitu arrazista eta LGTBfobikoak gehiago zigortzen eta gaitzesten direla?

Azken hamarkadan, indarkeria matxistari buruz hobeto informatzeko hamaika kode deontologiko publikatu dira. Espainiako Estatuan zein autonomia erkidego askotan emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako legediak garatu dira. Euskal Herriko mugimendu feministak lortu du jai esparruetan sexu indarkeria ikustaraztea eta horren kontrako protokolo eta kanpaina ugari garatzea. Eraso arrazista eta LGTBfobikoak, ordea, ezkutuan mantentzen dira. *Sanferminetan* eraso homofobo bat (ziur aski askoz gehiago dira) gertatu zen eta soilik *Shan-gay* aldizkari LGTBak publikatu zuen.

Areago, “etorkinak balira”, “homosexualak balira” argudioak androzentrikoak dira. Begirada intersektionala premiazkoa da, eraso sexistak eta indarkeria matxistak azaldu eta salatzerakoan diskurtso feminista etnozentrakoa eta heterosexista izan ez dadin.

Diskurtso feminista indartzeko horrelako konparazio gorrotagarriak erabiltzea benetan traketsa eta mingarria da. Antiarrazista ez den diskurtso feminista benetan traketsa eta mingarria da. ■

Generoak dantzan

Liburu bat ekarri dit lagunak, interesgarri izango zitzaidalakoan. Baia bai! Eta hasteko artikulua batek begia jo dit.

Mutil-dantzak badira Baztanen, publikoak, edozein herritar sar baitaiteke borobilean. Edozein? Izenak dioenez, mutilentzako alegrantziak ziren, nahiz gure garaian adin guztietako gizonezkoek zuten dantzatzeko: bakarrik emazteak ziren haiekin dantzatuak. Eta azken urte hauetan haiek ere haizu badira dantzatzera, hara heltzea ez da dantzaldi airoso bat izan, borroka aski latza baizik, protagonistek dioskuten.

Protagonistek egiten baitute prozesuaren kronika, plazara ateratzeko lanean aritu diren ber-berek. Batzuek, beti gustuko izan duten dantzara sartu ondoan, kontzientzia feminista hartu zuten, eta denak helburu amankomunean bildu ziren. Alde autobiografikoak indarra ematen dio idazkiari, eta irakurleari plazara. Irakaspenez betea da, bestalde, argiki azaltzen du bazterketa erakitze eta mantentze mekanismoak nola ari ziren. Besteak beste:

Nola mutil ez diren gizon ezkonduak eta mutikoak dantzatzera onartua izan ziren eta, aldiz, jasanezinezko aldaketa zen emazteek dantzatzeko. Sexu/generoa zen beraz, bazterketako funtsa. Gi-



Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

Batzuek, beti gustuko izan duten dantzara sartu ondoan, kontzientzia feminista hartu zuten, eta denak helburu amankomunean bildu ziren

zontentzat aldatzen ahal zen tradizioa, baina tradizio beraren errespetua argudiatu zuten emazteen aurka: gezurra frogatua da.

Nola hamarkadetan emakumeek dantzatzeko zuten herri batean dantzak kendu zituzten, bi gizonek, desadostasuna adierazi zuten. Sexu-berdintasunerako aurrerapenak atzera botatzeko,

gizon bik herritar gehienek baino indar handiago izan dezakete.

Nola anomalia horietan hautematen den Elizondoko eragina: hiriburuan kokatu da baztertzailen bunkerra eta, ekitaldi ofizialeko dantzak parekideak direnean, elizaren eremu pribatuan egiten dute oraino beren ekitaldi soilki maskulinoak.

Nola dantza parekideak galarazteko ahaleginetan dihardutenekin bat egin duten botere atzerakoiek –linguistiko (erdara), erlijioso, politiko, sozial, ekonomikoek–.

Plazara Dantzara herri-ekimenak lortu duen aitzinamendua iraunkorra izango dela itxaroteko arrazoiak ez dira falta. Erne egotekoak ere ez. Garbiñe Elizegi Baztango auzapeza ausartu zenean dantza-borobilean sartzera, zer zuen jasan irakur daiteke astekari honetan berean [Garbiñe Elizegiri elkarriketa 2549. zenbakian].

Erreseina honetan baino gauza gehiago eta hobeto kontatuak dira Baztango bost emaztek atundu artikuluan:

“Baztango mutil-dantzen analisisa eta prozesu kolektibo feminista”, hoguei bat lanek osatu liburu gogoangarri batean, Miren Guilló Arakistainek koordinatua, *Festak, genero-harremanak eta feminismoa*, UEU, 2016. ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak

ARGIA

Gurean bidea ez da helburu behar



Karlos Gorrindo
EUSKARA TEKNIKARIA
@kgorrindo

Botila erdi betea edo erdi hutsik dagoela esaten dugunean, ikuslearen sentsazio, irudi, ilusio edota helburuen arabera izan ohi da erantzuna. Esaterako, Gernika-Lumon Soziolinguistika Klusterrak egin duen kale neurketaren emaitzen harira (2016koa), egongo da balorazio positiboa egingo duenik, aztertutako jendartearen (5.491 lagun) %50ak euskaraz egiten duela ikusitakoan. %50etik gora erdaraz egiten dela ikusi duenak zapuztuta izango du gogoia, atzera begira jarrita, zazpi puntu beherantz egin duelako erabilerak azken hamar urteotan.

Hortaz, Gernika-Lumon euskaraz hitz egiten dela ikusten duenarentzat datu ezin baikorragoa izango da, gure hizkuntzak bizirik jarraitzen duelako herri-tarren ahoan; baina oso negatiboa, azken hamasei urteotan erabileraren gorakadak etena ez ezik, beherantzko joera kezagarria hartu duelako erabilerak gure herrian, eta agonia luze baten ezaugarri izan daitekeelako aldapa beherako etengabe hori.

Euskarak langabezia ezagutu zuen berrogei urte luzez eta behin lana lortuta, krisia amaituta zegoelakoan, lanpostuaren balorazio positiboa egitea zegoigun, harik eta beste krisi mota baten zartakoak berriro euskara kolokan jarri duen arte. Garrantzitsua lana izatea da, baike, eta hau bezain inportantea lan iraunkor eta duina izatea. Gure asmoa ez da mailari eustea, gorago egitea baino.

Arestian esana hartuko dugu oinarritzat.

Euskadiko Autonomia Erkidegoa baino helburu ez duenari ez dio inoiz lipotimia ideologikorik emango independentzia lortzen ez bada. Baina, bestalde, Euskal Herri subiranoa amets duena negarrak eragindako muki dariola ibiliko da bazterretan helburua Everesten jarri duelako eta ez Oiz mendi-parke eolikoan. Zaputzak harrapatzen zaitu zure nahia betetzen ez dela ikusten duzuean eta jakin badakizunean, gainera, betegarri den xedea dela helburu hori. Ez dut esango konformista izatea deitoragarria denik, izateko mota bat baino ez delako. Eta nor gara gu esateko zelakoa izan behar den urlia edo sandia.

Ahalegintzea dela diote norberaren buruarekin asebate sentitzeko modu bat. Deus egin barik ez duzu inoiz ezer lortuko, baina ahalegintzen bazara, diote teoria honen zaleek, bestelako zentzua emango diozu zeure bizitzari, nahiz eta ahaleginean burua hormaren kontra jo.

Hasitakoa bukatu egin behar den teoriarekin nago ni adosago baina, ahalegintzea helburura iristeko taktika edo estrategia baino ez dela uste baitut.

Eta gurean bidea ez da helburu izan behar.

Zoritxarrez, hasitakoa bukatu ezinda bagabiltza eta hortik dator frustrazioa eta nahigabea, gorantz barik, beherantz gatzelako eta ahalegin-ahalegintzen garen arren, helburua gero eta urrunago dakusagulako, euskarari dagokionez, behintzat. ■

Bartzelona: “No en el meu nom”



Itxaro Borda
IDAZLEA

Freddy Mercury eta Montserrat Caballé irudikatu ditut abuztuaren 17ko gauaren minean, Rambla gainetan eta Cambrilsko itsasertzean, *No tinc por* bi bozetan kantatzen. Mina hazi zait bihotzaren sakonean: masa hilketen zerrenda emendatzen ari da, Parisko *Charlie Hebdo*-ren kontrako sarraskiaz geroztik. Noski, badakit, munduan barna, eraiketa zakar askoz gehiago badela, baina bakoitzak bereak ditu negarreztatzen, baka-rraren doluak guztiena ordezkatzan ahal duelako.

Jihadistak hain gazteak izateak halaber gogoa inarrostean dit: atentatu itsuen egileak adin hotezekoak dira eta ordenu emaileak, beti bezala, gizon zohituagoak, Liburu Sainduei erranaraz-

ten dioten horretan bertan ez dutela beraiek ere sinesten. Paradisua erdiesteko ideologikoki apailatzen dituzte odol beroko mutikoak, juduak eta apalesgarriki *kouffar* izendaturiko infidelak gauza bilakaturik, haien kontra ekin dezaten urrikirik gabe. Ez du balio luzatzeak: terrorismoaren mekanismoak ezagutzen ditugu.

Beldurra, ezberdinarenganako mespretxua eta sistemaren biktimak direlako sentimendua txertatzen zaie zainetan. Testu erlijiosoaren idolatriak eramaten ditu fundamentalismora. Islamak ez du errurik orde, baizik eta islama hilketatresna gisa moldatzen duten horiek.

No en el meu nom. ■

BASERRIA

Transmisio-soka

ZER EGINGO DUGU BASERRIAREKIN?



“Txikitan amamak azken judizioari buruz asko hitz egiten zigun, kaleak dendaz eta errepidez beteko zirela, antikristoa etorri eta mundua bukatuko zela esaten zuen. Baserriaren bukaeraz ari zela uste dut. Baserria arriskuan zegoela esateko bere modua zen”. Asier Altunaren *Amama* pelikulan kontatzen da: baserriaren transmisioari eutsiko bazaio, hitz egiten hasteko ordua da.



Itziar Ugarte Irizar
@itzugarte

Baserri mundu tradizionalak gaurko gizartean sortzen duen gatazka du ardatz *Amamak*. Honela zabaltzen du filma protagonistaren ahotsak: “Baserria ez da sekula banatuko. Inondik inora ez. Hori da baserriko legerik sakratuena. Baserria seme bakar baten esku geratuko da oso-osorik. Besteek baserriatik alde egin beharko dute. Aspaldi seme zaharrena izaten zen etxean geratzeko erantzukizuna jasotzen zuena. Gaur egun oinordekoa aukeratu egiten da”.

Hor dago koska, eta hori da kezka. Tradizioz, baserriaren transmisioa ziurtatzeko etxeko seme-alaba zaharrena geratu izan da bertan, lurra landu eta gurasoak zaintzeko ardurarekin. Gaur egun, bertako lanari segida emango dion pertsona bakarra hautatu ordez, hainbat oinordekoren artean banatzea ohiko bihurtu da. Hala baieztatu digu Andres Urrutia notario eta Deustuko unibertsitateko irakasleak. Notaritzatik antzeman dutenez, unitate ekonomiko osoa zen baserria lehen, eta bizpahiru senideren etxebizitza da gero eta gehiago orain. Eta hori, gaur arte izan duen funtzioari dagokionez, baserria desgertzea dela dio. “Esan daiteke garai batean familia baserrirako zela eta egun, esanahi kolektibo hori galtzean, baserria dela titularrarentzat”.

Maite Aristegi, EHNE Euskal Herriko Nekazarien Sindikatuko idazkari nagusi ohia, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartean dabil lanean egun, baserriaren transmisioaren ardurak mugituta. Asier Altuna bezala bergararra da, eta zera dio pelikulaz: “*Amamak* baserriko lana gogortasunarekin lotzen du eta lana egin behar da, baina gaur beste forma batzuk, eredu berriak, topatu behar ditugu baserriko lanari eusteko”. Aristegik baserria eta nekazaritza-etxea elkarbanatzen du anaiarekin. Bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko askok hartu duten aukera dela dio, bere arriskuak dituen: “Nekazaritza-turismoa baserriaren osagarri moduan sortu zen, baina askotan gain hartu dio. Ez badugu turismoarekin batera nekazaritza lantzen, paisaia eta kultura galduko dira”.

Lege aldaketa, aldeko

Baserriaren transmisioa, baliabide juridikoen aldetik ondo antolatuta dagoela uste du Urrutiak, arazoa besterik dela: “Kolokan dagoena baserriaren ekonomia eta kultur eredua da, etxebizitza soil eta abereak eta lurra kudeatzeko modu berri eta mekanizatueta igarotzea”. Urrutiaren hitzetan, batik bat legea aldatu delako dago transmisioa juridikoki bermaturik; 2015ean oinordekotzen gaineko araudia berritu baitzen EAEn, Euskal Zuzenbide Zibilaren Legea onartuta.

Testamentua egiteko orduan oztopoak arindu ditu lege berriak. Alderik onena da aukerak zabaltzea eta baserriaren jabeari eskuak “libreago” uzten dizkiola, Aristegiren iritziz. Lehen, ezinbestez lau bosten edo bi heren utzi behar zitzaizkien ondorengoei. Orain, senipartea (gurasoek seme-alabei utzitako ondasun multzotik senide bakoitzari dagokion parte) heren batera murriztu da, eta kopuru handiagoa utzi du askatasunez banatzeko. Halaber, ondorengoei eman beharreko kopurua nahieran banatu daiteke orain; bakar bati utzi diezaioke dena, eta besteei ezer ere ez. “Inork pentsa dezake dena bati uztea ez dela justua, baina ulertu behar da, baserria hartzen duenak, baserria eta lurra lantzeko ardurarekin hartzen duela. Ez da dena modu espekulatiboan begiratu behar”, azpimarratu du.

Euskal Herrian aspaldiko kezka da baserria bere osotasunean mantentzea. Aristegik azaldu digunez, ez zatitzeko ahalegin horretan sistema ezberdinak izan dira lurralde bakoitzean: Bizkaian tronkaletasuna –ezinbestean herentzian jasotako ondasunak ondorengoei utzi beharra– oso garrantzitsua izan da osorik mantentzeko. Gipuzkoan ez da egon foru hori, Espainiako Zuzenbide Zibila baizik, eta legearen zirrikituak erabili dira ez zatitzeko, maiorazkoaren figura kasu”. Urrutiak gehitu du Nafarroan betidanik aitoritu dela legez etxearen garrantzia, eta araudi berriak Hegoaldeko lurraldeen arteko banaketa gainditu duela. Iparraldean, Kode Zibil

Inkomunikazioa da ‘Amama’ filmeko zehar-gaietako bat (irudian, protagonistetako bi). Hain justu, elkarrizketatuak bat datoz: oro har ez da nahikoa hitz egiten familia-baserrien etorkizunaz; gai tabua da hein batean, etxeko artean ezinegona sortzen duena.



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS



EHLG

Andres Urrutia notarioa, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteko kide Maite Aristegi eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarako Daniel Barberarena.

frantsesak ezarritako banaketarako joeraren gainera, baserriarrek nola notarioek, urte luzez etxaldea bere osotasunean mantendu dutela azaldu du, ezkontza kontratuen bidez batik bat. Baina bertan ere “kontrako joera” dagoela ohartarazi du.

Inkomunikazioa da *Amama* pelikulo zehar-gaietako bat eta, hain justu, hori da Aristegirentzat baserriaren etorkizuna auzitan jartzerakoan dagoen arazo nagusietakoa: ez dela hitz egiten familia-baserriaren biharamunaz, ez behintzat onuraduna hil eta herentziaren auzia mahai-gainera iristen den arte. Jabea hil aurretik hitz egitea ahalbidetzen duten tresnak dira oinordetza-itunak, lege berriak barnebiltzen dituenak. Baserriaren jabeak bizirik direla berba egiteko modua ematea aurre-
rapausotzat du Aristegik.

Ateak zabaldu

“Geratzen diren baserri guztietatik ahalik eta gehien bizirik mantentzea nahi baldin badugu, kanpoko jendeari zabaldu beharra dago”, dio Aristegik. Berriki herrikide batzuek baserria saldu eta berriz martxan ikustean sentitu duten poza kontatu du: “Karga bat zen haientzat; kalean bizi ziren, eta tarte-ka baserria garbitzera eta lurrak ondo mantentzera joan behar zuten. Orain, pozten dira berriz ere martxan ikusita Funtsean, hori da kontua, izan salduta, errentan edo akordio batera iritsita, baliola ematea martxan segitzeari”.

Izan ere, kasu batzuetan baserriari jarraipena emateko prest dagoen seniderik ez dagoen modu berean, bada-
dira baserrira gerturatu nahi duten gazteak, baina lurrera sarbiderik ez dutenak. Familiakoa ez dena etxean

sartzeko, ordea, konfiantza falta eta erresistentzia handia igartzen du Aristegik: “Baserrian segi behar ez duenak, kalean egin duelako bizimodua edo dena delakoagatik, nahiko balu txoko bat izatea familiarekin elkartzeko, posible da, aukerak mila daude; baina lur-sailak landu nahi ez baditu, horiek baliatzeko aukera eman beharko lioke hirugarren bati”.

Jende berria erakartzeko eredua birformulatu beharra ikusten du Aristegik. Beste esperientzia bat jarri du adibidez: “Herrian bertan ezagun batzuk komuna gisa antolatu dira. Gure baserriak oso handiak dira eta batera lantzea aukera bat izan daiteke, baita lan baldintzak hobetu eta opor egunak hartzeko ere, adibidez”. Aukera berriei bidea erraztu ezean, denbora gutxian aldaketa handia etorriko dela ohartarazi du.

ETXALDE 
nekazaritza iraunkorra

“HERENTZiarekin bakoitzak bere pastelaren zatia eraman nahi du, bestelako ondorioez arduratu gabe”

Oihana San Sebastian Etxegarai lezoarra Oiartzunen bizi da egun. Bera eta bikotekidea oinordekorik gabeko baserritarren bila aritu dira, haiekin ofizioa ikasi eta kezkatzen dituen transmisioaren arazoari heltzeko. Oraingo, euren saiakerek porrot egin dute.

Familiatik baduzue baserrirako sarbiderik?

Nire aiton-amonak, baita nire bikotekidearenak ere, baserrian hazitakoak dira, baina, bi baserriak hiriak jan ditu. Nire amonarena, Irunen, asfaltoak inguratzen du osorik; baserritik eraikina baino ez da geratzen.

Nondik hasi duzue baserrira salto egiteko saiakera?

Nik beti izan dut amonak kontatzen zuen horretara jotzeko nahia; baita beharra ere, eurek ereindako guztia galtzera doala ikustean. Interneten eta higiezinaren agentzietan bila hasi eta ezinezkoa zela ohartu ginen, prezioak izugarri handiak baitira. Herentzian jasotako seme-alaba askok salgai jarriak dira, oso egoera txarrean gainera. Udaletxera joan ginen egoera zein zen galdetzeraz, ea norbait ezagutzen zuten interesa izan zezakeenik gu baserrian



hartzeko, baina informazio pribatua zela-eta, ezin izan ziguten ezer esan. Baserri bat okupatzea ere pentsatu genuen. Egia esan, ez genekien nora jo.

Zer bilatzen zenuten?

Hipoteka eta baserri bila hasi ginen buru-belarri. Otu zitzaigun baserriren batean egon zitekeela jende heldua, oinordekorik gabea, akaso laguntza beharrean dagoe-na, gu hartu eta euren jakintza transmititzeko prest egon zitekeena. Alokairua ordainduta ere, haiekin bizi eta zainduko genituzke. Ilusioz beteta hartuko genuke,

formazio baxua izan arren. Nik turismo arloan egiten dut lan, beraz, nekazaritza eredu iraunkorra lantzea zen gure asmoa. Kasu asko ezagutu ditugu Katalunian, turismo eskaintzaz gain, nekazaritza landu eta bestelako proiektuekin uztartzen dituztenak, artisautzarekin kasu.

Zein izan da irakaspena?

Ez dugu lortu; jendea itxia da eta ez da fidatzen. Beldurra diote materiala, ekonomikoa, galtzeari. Kosta egiten da harago ikustea. Gure ondare kulturalaren parte da; Oiartzunen barrena baserri asko erortzen ikusten ditugu eta tristea da. Herentziarekin, bakoitzak bere pastelaren zatia eraman nahi du, bestelako ondorioez arduratu gabe. Nik ere maite dut nire amonaren etxea, baina gureak ez diren etxeak ere maite ditugu. Gure kulturaren parte dira, eta bakardadean ari dira galtzen.

Eta orain zer?

Kreditu txiki batean sartu gara eta erortzen ari zen pisu txiki bat erosi dugu Hondarribian. Gure kasa ondo jarri eta proiektu txiki bat dugu buruan. Azkenean ikusi dugu bide bakarra lan eta lan aritzea dela, baserri bat erosteko nahikoa diru egin arte.

Iparraldean martxan dira

“Iparraldean hiru etxalde uzten direlarik, bi berri jartzen dira. Frantziako Estatuan, hiru uzten direlarik, bakarra eusten da. Kulturalki, indar handia dauka etxaldearen segidak hemen. Hala ere,

egoera ezkorra da etxalde kopuruaren apaltzea: azken 12 urteetan 1.100 etxalde inguru galdu ditugu”. Daniel Barberarena Euskal Herriko Laborantza Garbarako (EHLG) kidearen ahotan, datuek argi erakusten dute egoera zein den.

“50 urtetik gorako laborarien %60ak ez daki zer egingo duen bere etxaldearekin, hori da arrangura”, dio. Fenomeno berri bat ere bada: baserrietara hurbiltzen direnak gero eta gehiago dira familiak kanpokoak; oro har, auzokideak,

Baztan,
Euskal Herriko bihotzean

Baztango Udala
www.baztan.eus

» **MAITE ARISTEGI, DEBAGOIENeko LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA:**
 “Baserri ahalik eta gehien bizirik mantentzea nahi badugu, kanpoko jendeari zabaldu beharra dago. Salduta, errentan eskainita edo bestelako akordio baten bidez; oinarritzkoa da martxan jarraitzeari balioa ematea”

» **DANIEL BARBERARENA, EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA:**
 “50 urtetik gorako laborarien %60ak ez daki bere etxaldearekin zer egingo duen, hori da arrangura. Gai minbera da, transmisio-sokaren apurtzeak aunitz sufrikario ekartzen duelako”

» Ipar Euskal Herrian ‘Zurkaitza’ transmisio-sarea sortu zuten duela bi urte, etxaldea uzteko prest dauden laborarien eta bertara joan nahi duten gazteen arteko harremanak sendotzeko

“BASERRIRA ETORRI NAHI DUTEN GAZTEEI SARBIDEA EMAN BEHAR ZAIE”

Koro Artola aresoarra da, baina Berastegin ditu baserria eta familia. Baserriko lanetik ateratzen du bizimodua –artalde eta lurra landuta–, eta nahiko ziur dauka etxekoek –bi seme-alaba ditu– ez diotela jarraipenik emango baserriko lanari. Egiaz, ez daki seme-alabek bere lekukoa hartzea nahi duen ala ez, lana “oso gustuko” ez badute ez behintzat. Horrek ez du esan nahi baserriaren geroak kezkatzen ez duenik: “Denborarekin nekatzen joaten zara eta pentsatzen: ‘Zer pasako da gero?’ Baserritarrak zahartzen ari dira eta inguruko belaze guztiak uzten dizkigute erabiltzeko, baina norberak ere uzten duenean, zer pasako da? Hutsik geratzen ari dira.”

Jende falta baserrietan, eta aldi berean, gazte dezente nabari ditu Artolak bertako lanera hurbiltzeko prestutasunarekin. Eta interesa izanez gero baserriko lanari

heltzeko, jende horri sarbidea ematea da berarentzat auziari heltzeko alternatiba erreala. “Gazteak gogoz badira, alokairuan lurak ematea edo dena delakoa adostu beharko da”. EHLGren dinamika begi onez ikusten du; are, bera ere horretan pentsatzen hasita dagoela aipatu digu. “Ez dago beste modurik”, dio. “Kanpoko norbait hartzerakoan ezin duzu jakin nola joango diren gauzak, baina datorrena ezezaguna izanik ere, tarte batean lagunduta eta apurka ikusita nola moldatzen den, urratsak eman daitezke, honek guztiak jarraipena izan dezan”.

Gogoia eta indarra duen gaztea, halere, ez da libre izango baserritarren ofizioak bizi duen estualditik: “Lan asko dago eta jende gutxi, beraz, makina asko sartu behar dira, eta inbertsioa errentagarria izan dadin nonbaitetik etekina ateratu behar da ezibenbestean”.

ondoko herrietakoak nola Frantziatik etorriak. 2007an baserrietan jartzen zirenen %7 ziren hauek eta gaur % 20 inguru dira. “Laborantzara lotu nahi dira baina ez dute lurrik ez etxalderik”, dio EHLGko kideak.

Aristegik aipatutakoaren ildotik, Barberarenak dio transmisioaz mintzatzeari dagoen zailtasunik handiena tabua izatea dela. “Gai minbera da, zeren etxaldearen segida zure arbasoen segida da; baina, zure aurriek ez badute hartu nahi? *Amama* filma ikusten baduzu, transmisio-sokaren apurtzea agertzen da, eta hauste horrek aunitz sufrikario ekartzen du”.

Dinamika bat sortu beharraz ohartuta, EHLGk transmisioaren hamabostaldia antolatzen du udazkenean, gazteen formaziorako eta laborariak “etxaldearen bilakaeraz gogoeta berritu beharraz sentsibilizatzeko”. Halaber, duela bi urte laborantza eremuko hainbat eragilek Zurkaitza transmisio sarea sortu zuten, etxaldea uzteko prest daudenen eta hara joan nahi duten gazteen artean harremanak bultzatzeko. Barnealdean egiten dute lan oro har, kostaldean lurrraren espekulazioak gazteentzat ezi-nezko prezioak eragin baititu.

Etxalde bat, garaipen bat

Laborantza ikasi nahi duten gazteak bilatu, formatu eta erretiroa hartzera doazenekin “gurutzatu” behar direla azaldu du EHLGko kideak. “Baditugu etxaldeak non transmisioa biziki ongi bideratu den. Senperen, esaterako, laborari batek bi alaba ditu, baina ez dute etxeko bidea heldu nahi eta kanpoko hiru gazte sartu dira”.

Esperientzia zailak ere baditu gogoan, kanpotik datozenak ez dira beti begi onez ikusiak eta bakoitzak proiektua ulertzeko bere modua izan dezake. “Hasten ari den gazteak senti dezake etxekoa kontrolatzen ari zaiola beti; baditugu saiakera frakasatu batzuk alde horretatik. Diruak ere sortzen ditu eztabaidak; zuk nire etxaldea nahi duzu errentan hartu, baina ze prezioan?”. Irizpideak markatzeko ere egiten du lan sindikatuak.

Harremanetan sakontzea funtsezkoa da Barberarenaren ustetan, eta berandu baino lehen gaia gizarteratzeko bideak jartzea: “Ulertu behar dugu auziari heltzea ezinbestekoa dela biharko Euskal Herria pentsatzeko. Ez ditugu jubilatutako guztiak ordezkatzeko, baina etxalde bat salbatzen dugunean, jada garaipen bat da”. ■



Aniztasun funtzionala duten emakumeak

“GU GARA GURE BIZITZETAKO PROTAGONISTAK”



Ilazki Gainza Giraldo (Kalaka)

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

“Ikusezinak izan gara orain arte: ikusezinak legeetan, beste emakumeentzat, mugimendu feministarentzat. Zorionez, azken urteetan egiten ari garen lanari esker, ikusgarriak bihurtu gara”. Fekoor-eko (Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea) Bilboko egoitzan izan gara Mari Carmen Azcona Domínguez, Rosalía Cuadrado Pascual eta Marian Andrés Acharekin.

Fekoor irabazi-asmorik gabeko erakunde da. Aniztasun funtzionala duten pertsonen 20 elkarte nagusiak biltzen ditu eta 8.000 pertsonatik gora ditu atxikita.

2002. urtetik emakumeen batzordea sortu zuten Fekoor-en. Zer dela-eta iruditu zitzaion beharrezkoa elkarteko emakume batzuei batzordea sortzea? Aniztasun funtzionala duten gizonezkoen egoera berean al daude?

Emakumeen batzordea

1979. urtetik, Fekoor sortu zenetik, aniztasun funtzionala duten pertsonen problematika orokorra landu dute erakundeak, besteak beste, egunerokoan aurrera egiteko topatzen dituzten oztopoak, hezkuntzarako duten eskubidea eta integrazioa. Baina 2002. urtera arte, ez zituzten aniztasun funtzionala duten emakumeek emakume izate hutsagatik bizi dituzten oztopoak lantzen. Hori dela eta, batzordearen lehen helburua aniztasun funtzionala duten emakumeak bertaratu, elkartu eta beren intereseak diren gaiez hitz egiteko espazioa sortzea izan zen, hau da, tabua zen (eta oraindik hala den) sexualitateaz hitz egiteko, ama izatearen nahiaz, lan munduaz, eta abar. “Sorreran denak boluntarioak ginen, gaur egun berdintasun teknikari baten babesa dugu”; beharrezkoa dela diote. Batzordean kide gutxiago dira gaur egun, sei inguru, nahiz eta hiru diren era aktiboan parte hartzen dutenak. Emakumeek etxean karga asko dituzte, hori dela eta, askok ezin izaten dute batzordeko bileretara joan edota ez dute beren burua prest ikusten, horretan formaziorik ez dutelako. Hala ere, “guk beti esaten dugu inor ez dela jakinda jaiotzen, gu ere denborarekin formatzen joango gara, antolatu ditugun ikastaroen bidez. Beraz, parte hartzera animatzen ditugu aukera dugun bakoitzeari”.

Arima errebeldeak

Aniztasun funtzionala duten emakumezkoek botila ezezkoez beteta dute, gizonezkoek, aldiz, bide errazagoa dute. Orokorrean, ikasketak burutzeko, lana aurkitzeko, bikotekidea izateko, ama izateko dituzten oztopoez gain, beren familien babes falta dute halako gaiez hitz egiten dutenean. Aniztasun funtzionala duten gizonezkoak kalera ateratzera, lana eta bikotekidea bilatzera



» Aniztasun funtzionala dutenak familian zaintza lanak egiteko gai dira eta askok horretan igarotzen dute bizitza, baina beren seme-alabak zaintzeko gai diren zalantzan jartzen da

–gurasoak falta direnean norbait izan beharko dute-eta zaintzeko– bultzatzen dituzten bezala, emakumezkoekin kontrakoa gertatzen da. “Nik Psikologiako lizentziatura egitea erabaki nuen. Oztopo ugari topatu nituen erabaki hori hartu nuenetik, baina traba gehienak arkitektonikoak izan ziren; bai unibertsitatean baita bertara iristeko erabili behar nituen garraio publikoetan ere. Eskailera ugari zeuden metroan eta unibertsitatean, eta klaseetara jendearen elkartasunari esker iristen nintzen”. Hala ere, batzordeko kideek azpimarratzen dute topatu dituzten oztopo arkitektonikoez gain, aldatzeko zailenak direnak oztopo mentalak direla. “Munduaren aurka altxa garen arima errebeldeak gara”; horri esker eguneroko trabak gainditu dituzte.

Ez da erraza egunerokoan bizi behar izaten dutena eta emakume asko etxean daude oraindik, ordaindu eta baloratzen ez diren zainketa lanak egiten, beren ametsak errealitate bihurtzeko aukerarik izan gabe. Hori dela eta, beren esperientziak zabalduz, etxeetan dauden emakume horiek ikastera, lanera, kalera ateratzera bultzatu nahi dituzte: “Nik ahal badut, zuk ere ahal duzu”, diote. Sororitatea bultzatu nahi dute aniztasun funtzionala duten emakumeen artean, elkarren arteko babesarekin errazagoa baita aurrerapausoak ematea.

Amatasun urratua

Emakumeek ama izateko edo ez izateko duten eskubideaz edonork hitz egin dezakeela dirudi, baina aniztasun funtzionala duten emakumeei ama izateko duten eskubidea urratu egiten zaie, zuzenean. “Eskubide bera dugu, baina guri beste emakumeei baino gehiago jartzen zaigu zalantzan. Ama izatea erabakitzen duenak probak egiten ditu lehenago, berak duena genetikoak ez dela ziurtatzeko. Gaia seriozki hartzen dugu. Baina aniztasun funtzionala izan eta ama izatea erabakitzen duten emakumeak epai-tuak sentitzen dira mediku zita bakoitzeari, etxekoan artean, lagunaren artean. Oso gogorra da”, salatu dute. Jendartearen dagoen moral bikoitzak min handia egiten die aniztasun funtzionala duten eta ama izan nahi duten emakumeei: familian zaintza lanak egiteko gai dira



Beren burua gutxiesten duten emakumeak beren aukerez jabetzeko modu bat da, adibidez, ikusaraztea “Virginia Woolf idazle ezagunak aniztasun funtzionala izan zuela, desgaitasun mentala”; edota Frida Kahlo pintorearen bizitza istripu batek aldatu zuela, “bere obra ospetsua desgaitasun propioan oinarrituz”. Ezkerretik eskuinera: Rosalía Cuadrado, Mari Carmen Azcona eta Marian Andrés.

eta horretan igarotzen dute askok beren bizitza, baina beren seme edo alaba zaintzeko gai diren zalantzan jartzen da. “Inkoherentzia hutsa” dela diote.

Tailerrak, emakumeak beraiek jabekuntza prozesua egiteko

Komunikabideetan eurretaz hitz egiteak duen garrantzia azpimarratu dute, beren egoera normalizatu eta jendarteak egoera osotasunean uler dezan, beren gaitasunak gutxietsi gabe. Esaten ez dena ez da existitzen, ikusten ez dena ere ez. Hori dela eta, hizkuntza inklusibo kontzientea erabiltzea ezinbestekoa dela diote. Hau da, hizkuntza inklusiboa erabiltzen bada komunikabideetan, baina idazten den izenburuan aniztasun funtzionala izateari askoz garrantzi gehiago ematen baldin bazaio, berez esaten denari baino, ikuspegi inklusiboa galtzen du.

Hizkuntzaz harago, aniztasun funtzionala duten emakume askori kosta egiten zaie euren buruak emakume bezala ulertzea, ingurukoek beren “desgaitasuna” soilik ikusten baitute. “Jabekuntza soziala eta norbanakoarena ezinbestekoa dira egoera hori aldatzeko. Emakume bezala ez bazara eragile

aktibo, zaila izango da zure ingurukoak izatea. Egin behar dugun lehen aldaketa geuregan hasten da”. Jabekuntza tailer eta ekintza aldarrikatzaileen bidez lortu dute beren ingurukoak ere eragile aktibo bilakatzea. “Kalean dagoena ikusten da, beraz guk kaleak okupatu behar ditugu, horrela soilik lortuko dugu aldaketa”, ziurtatu dute.

Aldarrikapen horien baitan dago aniztasun funtzionala duten emakumeak ikusaraztea. Gizonezkoak dira ditugun erreferenteak gai guztietan: historian, biologian, artean, politikan, ekonomian... Azken urteetan emakume erreferenteak biltzeko lan eta ikerketak bultzatu diren arren, aniztasun funtzionala duten emakumeak ikusarazten dituen bilduma edo lan zehatzik ez da argitaratu.

Fekoor-eko emakumeen batzordeak urriaren 17an, Emakundek antolatutako Berdintasunerako gunean, Areatzan egongo den autobusean, aniztasun funtzionala duten emakume ospetsu eta ez ospetsuen inguruko erakusketa aurkeztuko dute. Batzordeko kideek ziurtatu dute aniztasun funtzionala azpimarratzea ez dela helburua, emakume horien lorpenak ezagutaraztea

“ANIZTASUN FUNTZIONALA” TERMINOA HOBETSIA

Azken urteetan, hainbat hitz erabili izan da aniztasun funtzionala duten pertsonak izendatzeko: desgaitu, minusbaliatu, elbarri, ezindu, eta abar. Legeetan oraindik “aniztasun funtzional” esamoldea txertatu ez den arren, beste edozein eremutan azken hori erabiltzea gomendatzen dute, “azken finean, denak gara anitzak eta kontzeptu horrek bizitza mota independentea islatzen du, Fekoor-ek bultzatzen duena, hain zuzen ere”.

baizik, baina onartzen dute egoera eta espazio batzuetan aniztasun funtzionala dutela azpimarratzea garrantzitsua dela. Jadanik jabekuntza prozesua hasi dutenek eta oraindik ez dutenek ere halako erreferenteen beharra dute: “Berak lortu badu, nik ere lor dezaket” esatera bultzatzen baitu erreferenteak izateak eta ekintzara bideratzen baititu biktimismoan murgilduta dauden emakumeak. Beren burua gutxiesten duten emakumeak beren aukerez jabetzeko modu bat da, adibidez, ikusaraztea “Virginia Woolf idazle ezagunak aniztasun funtzionala izan zuela, desgaitasun mentala”; edota Frida Kahlo pintorearen bizitza istripu batek aldatu zuela, “bere obra ospetsua desgaitasun propioan oinarrituz”. Aniztasun funtzionala duten emakume ezagun asko daude, baina ez da beren “desgaitasunaren” berri ematen.

Ikusgarritasuna behar da normalizaziorako eta lan horretan murgilduta daude Fekoor-eko emakumeen batzordeko kideak. “Ezer ez guretzat, gu gabe” da beren leloa. Pertsona bakoitzak bere bizitzako erabakiak hartzeko askatasuna izan behar du eta bere bizitzako protagonista izateko eskubidea du. “Pertsonak bere aniztasun guztiekin onartzen ditugun unean inklusioa errealitate bilakatuko da” eta horretarako aniztasun funtzionala duten eta ez duten pertsonen arteko elkarlana beharrezkoa dela adierazi dute. ■

Pascual Serrano, kazetaria

"INTERNETEK EZ DU INFORMAZIOA DEMOKRATIZATU, DESINFORMAZIOA BAINO"

Hedabideak izan dira Pascual Serranoren (Valentzia, 1964) lantoki eta aztergai. Rebelión agerkari digital aitzindariaren sortzaileetako izan zen 1996an eta Telesur telebistaren aholkulari aritu zen Latinoamerikako kanalaren hastapenetan. Sektorearen aztertzaile zorrotza, hedabide handien manipulazio tekniken eta interes ilunen salaketa egin du liburu ugarietan. Azkenaldion, baina, interesgarria deritzon enpresa eredu berrien sorrera aztertu du Serranok. Doako albiste interesatuak zabaltzen dituzten hedabide korporatiboena baino, kalitatea estimatzen duten irakurle engaiatuen harpidetzek sustengatuko duten hedabide kooperatibo eta baliodunen garaia dela uste du.



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Desinformación liburuan hedabideek mundua nola ezkututzen duten azaldu zenuen. Gehiago ote da kontatzen dutena baino?

Seguraski bai, gainera kontatzen dutena gero edo gezurra da edo ikuspuntu okerretik jorratu, testuingurutik kanpo atera, desitxuratu edo estandar bikoitzak aplikatzen dira. Mekanismo asko erabiltzen dira baina desinformazio panorama atsekabegarria dugu horien ondorioz.

Filtrazio kazetaritzarako garai ona dela dirudi, hala ere.

Filtrazioa ona da, gardena den heinean,

baina ez da, berez, kazetaritza. Norbait, maiz arriskuak hartuta, gizarteratutako informazioa da, berea da meritu nagusia. Kazetaritzak nolabait landu, forma eman eta transmititu egiten du informazio hori. Hala ere, Wikileaks ospetsuaren kasuan (2010eko *Cablegate* afera), informazioa pasatu zitzaion hedabide sorta jakin horrek ez zuen zuzentasun handirik erakutsi informazio hori transmititzeko orduan, interesatzen zitzaiena zabaltzeko eta beste gauza ugari isildu zituztelako. Geroago, informazioa denen esku jarri zenean, hedabide horiek informazio guztia zabaltzea oztopatu zutela egiaztatu zen.



Hedabidea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta fidagaitzagoa?

Ez da neurri kontua, dirua norena den baizik. Hedabide handien kasuan dirua sektore makurragoena izan ohi da eta txikien kasuan dirua jende normalagoarena.

Zeren aurrean egon behar gara erne irakurle-hartzaile moduan?

Lehenengo, esan bezala, dirua norena den begiratu. Ondoren, zure autoaren mekanikoarekin edo kardiologoarekin bezala, baten batez fidatu behar zara. Autoak frenatuko duela eta medikuak ondo operatuko zaituela pentsatu behar



duzu, ezin zara mekaniko edo mediku bihurtu, zuk zeuk egiteko. Era berean, ezin zara Siriara joan, han zer gertatzen den ikustera, norbaitez fidatu behar zara. Garrantzitsua da nork bere erreferentziazko hedabide eta kazetari berezitu sorta edukitzea. Saia zaitez Ekialde Hurbilaz, Kolonbiaz edo Afrikaz informatzen dutenetan zintzoenak eta sinetsgarriak aurkitzen eta jarraitzen.

Espainian ba ote dago prentsa fidagarririk?

Espainiako prentsa idatzian, egun, bada dira kazetaritza parte-hartzailea egiten duten hedabide kooperatibo batzuk, ez

dira tradizionalki alternatibotzat jo izan diren hedabide militanteak baina, due-la 20 urte geneukanarekin alderatuta, informazio baliagarria egiten ari dira. Eldiario.es, Infolibre, *La Marea*, Alternativas económicas eta *Mongolia*, kasu, mozkina bilatzen duten merkataritza enpresak dira, ez GKEak, baina apurtu dute eskema maltzur batekin: enpresa handiak akziodun, iragarle handiak finantzatzaile eta banka handia hartzekodun. *El País* edo *El Mundo* baino osasuntsuago daude ekonomikoki eta, gainera, rol nabarmenagoa hartzen ari dira: *black* txartelen afera azaleratu zuen Eldiario.es-ek eta ustelkeriaren

aurkako fiskalaren Panamako diruarena Infolibrek. Ikerketa kazetaritza egiten ari dira eta kazetariak eramaten dituzte Ukrainara edo Siriara, eta hori txalogarria da.

Público-k paperean ezin izan zuen iraun, hala ere.

Espainiako audientzien uste usteletako bat da pentsatzea informazioa jasotzeko eskubidea dutela baina nork ordaindu behar duen planteatu gabe. Hiru aukera daude hor: estatu sozial batek ordaintzea, osasuna eta hezkuntza bezala –eta ez dirudi gure estatuak horren alde daudenik– edo BBVak eta El Corte

Ingléseek ordaintzea –eta kasu horretan orain arteko informazio kaxkarra aterako da– edo guk geuk irakurleok ordaintzea. Pentsatzea aberats batek ezkerreko egunkaria mantenduko duela eta astebururo, euro erdi pagatuta, DVD bat oparituko digula, ez da bideragarria.

Beraz, ez dago kazetaritza onik edo zintzorik hedabide handietan?

Probestu beharreko koiunturak eta sinergiak daudela uste dut. Esaterako, La Sexta edo enpresa jakin batek egun izan dezake PPren ustelkeriarekiko lerro editorial kritikoa eta, ondorioz, han agertzeko deitzen badigute joateko prest egon behar dugu, jakitun egonik beraien akziodunen interesak kaltetuz gero –José Manuel Larari edo BBVARI buruz gaizki hitz eginez gero– horma baten kontra joko dugula. Niri oraintxe *La Razón*ek astero zutabea idazteko deituko banindu, baietz esango nioke, nik printzipioz nahi dudana idazteko dela pentsatzen baitut.

Logika kapitalista ere egon daiteke hor: gizartearen ezkerreko sektorearentzat ere, kontsumitzailea den heinean, kate bat edo saio batzuk egitea.

Noski, batez ere sistema erortzen ez dela ikusten badute. Adibidez, Interconomiak Pablo Iglesias bere tertuliara eramaten zuenean, hark egin zezakeen kaltea baino, audientzia %2tik %4ra igo zela hobesten zuen. Zer egin behar zuten Iglesiasek? Bada, hara joan, noski. Horrek ez zuen hedabidea ezkerreko bihurtzen.

Mezu eta ikuspegi alternatiboa duten hedabideak beti alternatiboak izatera kondenatuta daude? Bestela esanda, masarengana heltzea ala egia esatea aukeratu behar dute?

Egoera aldatu da. Adibidez, neuk sortzen esku hartu nuen Rebelión-en garaia iragan dela uste dut. Oso hedabide militanteak ziren, ez genuen kazetaritza-rik egiten. Internet garatu gabe zegoen artean, eta iraultzailea zen hedabideen kontrol estua zuen orduko oligopolioaren aurrean gizarte mugimenduen aho-
tsa erakustea, isilarazita zeuden ezkerreko aztertzaile eta iritzi emaile batzuk ateratzea. Egund, aldiz, lehen aipatu ditudan hedabideek horixe egiten dute, baina eurek bai, kazetaritza egiten dute, kolaboratzaileei ordaintzen diete, be-



riemaileak bidaltzen dituzte... Guk ez genuen hori egiten. Hedabide militantearen garaia igaro da, egund bestelako funtzionamendua duten hedabide horiek babestu behar dira, irakurle-harpidedunen bidez. Badago merkaturik hedabide diferenteak egiteko.

Gainera entretenigarriak izan behar direla diozu.

Ezkerraren errakuntza historikoa izan da hedabideen aurkezpenari garrantzirik ez ematea, 40 urte kostatu zaigu konturatzea testuak ondo lerrokatu eta argazkia jarrita hobeto irakur zitekeela, umorea eduki politikoarekin erabil daitekeela. Kazetaritza engaiatua ere atsegina izan behar da, ezin diegu hedabide handiei erakargarri izatearen eskulubia eman. Noski, ezin ditugu zaborrak atzera, eduki sexistak egin edo ikuskizun hutsean gelditu, baina ezin gara halaber aspergarriak izan.

Jibizaratuak esaten diezun formatu azaleko eta laburrek ez dute balio mezu kritikoa hedatzeko?

Horiek erabiltzera derrigortuta gaude, baina informazioaren azalean *surf egiteko* molde sinplifikatuak erabiltzean

pentsamendu menderatzaileak abantaila du pentsamendu kritikorearen ondoan. Lehenak ez du sakondu edo argudiatu beharrik, eta bigarrenak espazio gehiago behar du. Ez diogu, esaterako, Twitterren 140 karaktereko eremua erabiltzeari utziko, beste erremediorik ez dugu, baina mundua aldatu nahi dugunok, diskurtso alternatiboa dugunok eta *establishment*-aren pentsamoldeari argudioekin aurre egin nahi diogunok espazio gehiago behar dugu. Beraz, etsaiaren zelaian jokatzeko ari gara mikroformatuetan.

Produktu batengatik pagatzen ez baduzu, produktua zeu zarelako dela esan ohi da.

Horixe, Ignacio Ramonetek dioenez, “arrain ustela doan izan ohi da eta arrain ona ordaindu behar da”, audientziak saltuta lortzen dira iragarkiak. Zertarako ordaindu, informazio mordoa doan eskura badaukat? Pentsatu behar duzu tranpa duela doako informazio horrek, izan ere, nork ordaindu dio kazetariari? Interesa duen iturri batek beti. Are, itxuraz inork ordaindu ez badu, orduan seguruenik ezkutuko intentzioa izango du informazio horrek, zerbait lortzeko.

Ezkerreko irakurle kritikoa ere “dena doan” horretara ohiturik, ez ote da ordaintzeari uzkur?

Bai, noski, baina kazetaritza zintzoaren alde gaudenok pedagogia egin behar dugu. Pentsa, duela hamar urte hilean 30 euro ari ziren ordaintzen paperezko egunkariaren truke, eta orain 6 ordaintzeari gehiegi deritzote. Kostu ekonomikoa ez da hainbestekoa, gehiago da mentala, pantailan dena doan jasotzen ohituta zaudelako.

Kazetaririk gabeko kazetaritza posible da?

Inolaz ere ez, *herriar kazetaritza* esan zaion horren aurka nago. Herriarri entzun behar zaio, informazioaren protagonista izan behar du, bere eskakizunek albiste izan behar dute, baina teknikari bat egon behar da informazioa aukeratzeko eta mezuari forma emateko. Ikusi beharko da zein irizpiderekin egiten duen, merkataritza balioekin ala gizarte engaiamendu balioekin.

***La prensa ha muerto, viva la prensa libre* (2014) zenioen krisiak hedabide askeagoak ekarri dituela. Hedabideen krisiaz ari zinen finantza krisiaren barruan?**

Nik nioen lehengo eredu oligopolistikoaren krisia ez zela inolako tragedia, baliodun hedabide aurrerakoiak aspalditik zeudelako krisian. Publizitatea galdu dutela diote, eta bankak ez diela mailegurik ematen, eta nik diot hedabide zintzoek inoiz ez dutela horrelako publizitaterik edo dirurik jaso. Lehen, krisia *besteen-tzat* zen, ez zen handien arazo; orain, berriz, liga berean jokatzeko dugu. Ongi etorri Internetera, non kostuak baxuagoak diren eta borroka harpidedun gutxi batzuk lortzea den. Hala ere, Internetek

» “Lehenengo, dirua norena den begiratu. Ondoren, garrantzitsua da nork bere erreferentziazko hedabide eta kazetari berezitu sorta edukitzea”

» “Hedabide militantearen garaia igaro da, egun bestelako funtzionamendua duten hedabideak babestu behar dira, irakurle-harpidedunen bidez”

ez du guztiz demokratizatu informazioa, bai desinformazioa, edonork astakeriak esan ditzakeelako. Oro har, uste dut egoera hobea dela eta krisia osasungarria izan dela zentzu horretan.

Baina prentsak gehienbat korporazio handien esku jarraitzen du. Hain zuzen ere, zure azken liburuak hedabide demokratikoak “egin gabeko iraultza” direla diozu.

Irrati eta telebisten kasuan oso gutxi lortu da, diru asko behar delako, lizentzien kontrol estua dagoelako eta teknikoki zailagoa delako telebista ondo

egitea. Une honetan hedabideen boterea itzela da, laugarren boterea jada ez da beste hiruak kontrolatzen zituen. Diruaren zerbitzura dagoen boterea da, demokrazia eta zilegitasun gutxien duena. Koiuntura politikoak aurka izan dituenan, Latinoamerikan kasu, manipulatzeko eta estatu kolpeak antolatzeke ahalmena erakutsi du.

Nolako neurriak hartu beharko lirake?

Edukiak zintzoak izan daitezkeen mekanismoak ezarri behar dira, ez dezaten inpunitatez gezurrak esaten jarraitu. Denen ahotan dago hedabideen zintzo-tasun falta, post-egia, gezurra... Zubia jausten bada arkitektoa erantzule da, okerreko hanka operatuz gero medikua, gezurretan ari den kazetaria edo hedabideari erantzukizuna ez da planteatzen. Nire ustez neurriak hartu behar dira herriarren iritzia jasotzeko, kontzentrazioaren aurka, azken finean, informatzeko eta informatua izateko eskubidea bermatu behar da. Espainiako konstituzioaren 20. artikuluan dago egiazko informazioa jasotzeko eskubidea, baina inork ez du hori bermatzen, merkatuen esku uzten delako, eta merkatua ez dago eskubideak bermatzeko, negozioak egiteko baino.

Egiatzotasunaren zaintzarako erakunde bat eratu beharko litzateke orduan?

Venezuelan eta, batez ere, Ekuadorren egin dute, eta zerbait gezurra bada, zigor administratiboa ezartzen da. Nork zigortzen du? Adituek osatutako erakunde batek, ez gobernuak ez epaile batek. Gezurretan aritzea zilegi bada, herriarrek ezin du egia eta gezurra ezberdindu, diktadura batena bezalako zentsura da hori. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

tradebi@tradebi.com

Leire Erkoreka, psikiatra

“IKERKETEK DIOTE SINTOMA PSIKOTIKOAK LARRIAGO ADIERAZTEN DIRELA AMA HIZKUNTZAN”

Zer gertatzen da paziente eskizofrenikoak nola dagoen azaltzen dionean psikiatrari? Gauza bera kontatzen al du lehen hizkuntzan eta bigarrenean? Ikerketa urriek ezetz diote. Leire Erkoreka harrituta dago zein ikerketa lan gutxi egin den buruko osasunaz eta hizkuntzaz, ezaguna bada ere eragina nabarmena dela.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: ARITZ LOIOLA

Buruko osasuna eta hizkuntza oso lotuta daudela diozu.

Hizkuntza garrantzitsua da osasunaren alor guztietan. Edozein harreman terapeutikotan ikusi da osagilearen eta gaixoaren arteko ulermena zenbat eta hobe izan emaitza terapeutikoak hobeak izango direla. Bien lehen hizkuntza bera denean, osagilearen eta gaixoaren arteko harreman terapeutikoa hobetzeaz gain, tratamenduarekiko atxikimendua hobetu egiten da.

Hizkuntzaren garrantzia are nabarmenagoa da buruko osasunean, guk ez daukagu tresna diagnostiko osagarriarik. Hau da, gure tresna diagnostikoa hizkuntza da, azterketa psikiatrikoa egiterako orduan hizkuntzan oinarritzen gara. Psikiatryan, eta psikologian ere bai. Diagnostikoa egiteko eta tratamendua ipintzeko emaitzen azterketa, pazienteak adierazten dizkigun sintoma eta zeinu psikiatrikoetan oinarrituta dugu.

Beraz, ez da gauza bera gaixoa ama hizkuntzan artatu ala bigarren hizkuntzan?

Uda Ikastaroetan [EHUko Osasuna eta

Hizkuntza jardunaldiak Bilbon] egin genuen literaturaren berrikusketa. Argitaratutako lan gehienak paziente elebidun eskizofrenikoekin egin dira. Adibidez, depresioetan edo agerraldi maniakoetan zer gertatzen den ez dakigu, ez baitago argitaratuta, ez dago ikertuta. Eskizofrenia aztertu duten lan gehienetan ikusten da sintomak desberdin adierazten direla ama hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan. Gehienetan ama hizkuntzan sintomak larriago moduan adierazten dira edo gehiago adierazten dira eta terapeutak larriagotzat hartzen ditu.

Ikastaroan esan zenuen ikerlariak diotela ama hizkuntza emozioekin lotzen dela eta bigarren hizkuntza erabiltzeak errealitatera lotzen gaituela.

Antzeman den desberdintasuna azaltzeko ondoko hipotesia egiten dute: ama hizkuntza emozioekin lotuago dago eta sintoma psikotikoak emozioekin oso lotuta dauden heinean, larriago moduan agertzen dira ama hizkuntzan. Bigarren hizkuntza igortzeko funtzio betearazleak erabili behar dira, garunaren beste

funtzio batzuk erabili behar dira. Bigarren hizkuntza ez da hain automatiko ateratzen. Funtzio betearazleak erabiltzerakoan pazienteak hizkuntzaren formari eta igorpenari arreta gehiago jartzen dio. Arreta gehiago eskaintzeak, edozelan ere, gaixoa errealitateari lotuago mantentzen duela diote ikerlari batzuek.

Argitalpenen artean Bizkaiko bat aipatu zenuen. Gainerako ikerketen kontrako joera adierazten zuen.

Lan gehienek esaten zuten sintoma psikotikoak larriago adierazten direla ama hizkuntzan. Baita ere, batzuek zioten entzutezko haluzinazioak ama hizkuntzan bakarrik entzuten direla eta beste batzuek zioten larriago adierazten direla ama hizkuntzan. 1991n, Bizkaiko hiru psikiatrak, (Pablo Malo, Juan Medrano eta Jose Uriarte) lau gaixo eskizofreniko euskaldun zaharrekin egin zuten ikerketa. Haiek entzutezko haluzinazioak gaztelaniaz baino ez zituzten entzuten. Ikerlari gehienek deskribatu zutenaren kontrako.



» “Ebidentzia nahikoa dago paziente elebidunetan azterketa psikiatrikoa hizkuntza batean edo bestean egiteak emaitza desberdinak emango dituela”

Nola uler daiteke?

Egia da lau paziente baino ez direla, eta nabarmendu behar da gehienetan muga metodologiko nabarmenak daudela. Lan gehienak paziente gutxirekin egin dira, gehienetan ez da aztertu gaixoei hizkuntza bakoitzean daukaten trebetasuna, ezta zein adinetan ikasi duten bigarren hizkuntza ere. Badirudi hizkuntza noiz ikasten den sekulako garrantzia duela. 5 urte baino lehenago ikasitako hizkuntzak hizkuntza primario moduan

gorde eta erabiltzen dira, eta 5 urtetik aurrera ikasitakoak bigarren hizkuntzat hartzen dira. Hizkuntza bakoitza igortzeko erabiltzen den oroimen mota desberdina da, 5 urtetik aurrekoak automatikoki igortzen dira eta 5 urtetik gerora ikasitakoek funtzio betearazleen parte-hartze handiagoa behar dute, eta hori ere ez da jaso lan gehienetan.

Nik uste dut muga metodologikoak egon arren ondorioa nahiko garbia dela.

Psikologian eta psikiatrian hizkuntzak izugarritzko garrantzia duela esan duzu, baina era berean ikerketa lan gutxi dagoela aitortu duzu.

Txarto ulertuek osasunean ekar ditzaizkete ondorioei buruzko ikerketak badaude, baina harritu ninduen da buruko osasuna eta hizkuntza lotzen zituztenak ez egotea. Psikiatriari buruz oso gutxi dago.

Uste nuen lan handia egongo zela eginda horren inguruan. Ikastaroan ez dakit zenbat argitalpen aipatu nituen, baina uste dut dozena batera ez zirela helduko, eta ez dago lan askoz gehia-

go eginda. Psikoterapiari buruz badago gehiago argitaratuta, baina gaixotasun psikiatriko zehatzetan, paziente elebidunak izanda, hizkuntza bakoitzaren erabileran dauden desberdintasunei buruz oso lan gutxi dago.

Zuk aipatutakoak nongoak dira?

Batez ere Amerikako Estatu Batuetakoak, latinoei buruz egindakoak, baita Hegoafrikakoak ere. AEBetan elebitasunak osasunean duen garrantzia landuta dago. Mediku latinoak eta paziente latinoak batzeko programak daude.

Zergatik aukeratu zenuen ikerketa lerro hori?

Psikiatra [Barakaldoko Osasun Mentaletako Zentroan] eta ikerlaria [Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean] izateaz gain, irakaslea [EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean] ere banaiz eta Naiara Ozamizekin batera egin dut lan hau. Basurtuko ospitalean lan egiten duen psikiatra talde batekin hasi ginen tresna psikometrikoak (pazienteari egiteko galdetegiak) euskaratzen. Helduak baino umeak genituen buruan, zeren gero eta ume gehiagok du lehen hizkuntza euskara, eskolan txiki-txikitatik lantzen dutelako. Pentsatu genuen garrantzitsua izango litzatekeela umeek sikiera eurei zuzendutako galdetegiak edukitzea. Ikastaroan egin nuen argitalpenen berrikusketa-lana ere hortik sortu zen.

Nola uztartzen dituzu argitalpenak berrikustea eta tresnak euskaratzea?

Berrikusketa-lanak zentzu handia eman dio tresnen euskaratze lanari, azkenean justifikazio antzeko bat da. Zergatik da garrantzitsua tresna psikometrikoak edo galdetegiak euskaratzea? Ebidentzia nahikoa dagoelako paziente elebidunetan azterketa psikiatrikoa hizkuntza batean edo bestean egiteak emaitza desberdinak emango dituela. Badirudi garrantzitsua dela norberaren hizkuntzan edukitzea tresna psikometrikoak.

Galdetegi horiek osasun etxeetan erabiltzen ikusiko ditugu?

Gu, oraingoz, euskaratzen ari gara. Donostiako Psikologia fakultatekoek piloa dituzte euskaratuta eta balioztatuta. Tresna gehienak TEA argitaletxean argitaratuta daude. Test psikologikoak jasotzen dituen argitaletxea da. ■

1947ko uholdea

Goizuetan lainoa lehertzen duenean...

Erriean marmitak garbitzen ari zela sentitu zuen Manuelek lehendabiziko ur-kolpea. "Baina zer da hori, olatua?" pentsatu zuen. Bere herrian, Hernanin, tanta bat ere ez zuen bota goiz hartan, Goizuetan ordea "baldeka". Urumea zazpi metro igo zen ia ordubetea eta erasoak sorpresan harrapatu zituen denak duela 70 urteko igande goiz hartan, baita mezan zeudenak ere. Goizuetan lainoa lehertzen duenean... apaizek ere kontuz ibili beharra baitaukate.



Iñaki Sanz-Azkue

ILUSTRAZIOA: AINARA AZPIAZU 'AXPI'

1947ko abuztuaren 24a zen, San Bartolome eguna. Goizuetako festen ondorengo igandea. Mañoli Loiartek goizeko sei eta erdietako mezara joateko ohitura zuen, eta egun hartan ere halaxe egin zuen. Meza entzun ostean, Alduntzingo bidea hartu zuen; Goizuetatik atera eta Hernanirako bidean, Urumea beheara errepide ertzean dagoen jauregian lan egiten baitzuen markesitentzako nekame.

Goizueta hiru meza izaten ziren igandetan, eta Antonio Elizalde, zortzi eta erditakora joateko prestatzen ari zela, entzun zituen lehendabiziko trumoi hotzak. Mezaren lasaitasunean, elizaren babesean gutxi esperoko zuen bertatik ateratzean aurkituko zuena: "Gu mezan ginela gailendu zen hura -ekaitzaz ari da Antonio-. Han nonbait, Goizuetatik gainean, lainoa lehertu ziken. Botatzen zuen... ez euria tza-tza-tza. Zorroan nola ateratzen da ura ontzia hustuta? Horrelaxe!"

Plaza urez betetzen hasia zen eta Zubi Haundia urak ia estali zuen. Nola zen posible hura? Ordu bete lehenago oinez pasatzeko moduan zen eta erreka... Arrosa izeneko emakumea Zubi Haundia zeharkatzen saiatu zen, urak gerriraino zituela. Baserrira joan beharra zuela eta erreka pasatzeko modu bakarra hura zuen. "Jendea ujuka hasi huen, ez pasatzeko eta ez pasatzeko. Azkenean mako bati heldu eta pasa zuten. Ura ikaragarritzko indarrarekin zihoan, eta ordurako zubia, plaza eta eliza hartuak zituen.

Aldakatarainoko urak eliza barruan

Milagros Narbartek ere ez du ahazteko egun hura. Ama oso elizkoia zuten eta eliza urak hartu zuela entzun zuten, laguntzera joan zen lasterka. "Elizan aulkiak izaten ziren erdiz beheara emakumeentzat, erdiz aurrera bankuak, gizonetarakoentzat. Aldakataraino iristen

zen ura, eta aulki guztiak dantzan zebiltzan uraren gainean. Don Juan parrokoa bizkarrean hartuta atera zuen elizatik Miguel Sukuntza korrikalariak".

Denbora gutxian urak herria hartu zuen. Hurrengo egunean Udalak idatzitako agiriak ere hala zioen: "Zazpi metroko altuera hartu zuen urak Goizueta eta eliza eta plaza aintzira bat bailiran geratu ziren". Milagrosek gogoa du oraindik: "Errekatik ateratako urek olatuak sortzen zituzten plazan, itsasoko olatu hilak bezala, *plat, plat...* etxeen hormen kontra jotzen zutenean."

Mañoli Alduntzinen zegoen jadanik, Goizuetatik 2 kilometrotara. Bertan, ez zuten sumatu ere egin euritea. Arduratu zegoen, ordea, markesitak zortzi eta erdietarako mezatik bueltatzen ez zirela ikusita. Ez zuen asko behar izan ezohiko zerbait gertatu zela ohartzeko: "Jauregiko leihotik erreka ikusten zen, gero eta gehiago ura, gero eta gehiago ura..."



Errekan behera elizako aulkiak eta sepulturak zetozen! Orduan konturatu nintzen, urak eliza hartu zuela”.

U r u m e a
z i z t u b i
z i a n

txe, lanean, harrapatu zuten Goizuetatik deitu zutenean. “Manuel, lainoa lehertu duk Goizuetan eta urak hazita zatozek – esan zion aitak–. Kontuz ibili baserrian”. Lizarra baserria erriberan zegoen eta kontuz ibili beharra zuten uholdeekin.

Ama Donostiako Bretxatik iritsi zenean egunero bezala merkatutik hutsak zekarzkien esnetarako marmitak garbitzera joan ziren. Urumea baxu zetorren eta ez omen zegoen arriskurik.

Erriora sartu orduko, ordea, olatu txiki bat sumatu zuen Manuel gaztetxoak. Begirada altxa zuenean ikusi zuen zetorrena: “Olatua bezala, kol-

ukuilura. Lau bat metro igo huen gure inguruan”.

Ur-kolpea hiru kilometro beherago dagoen Hernaniko Karabel auzora iritsi zenean, *La Voz de España* egunkariko kronista trenean zegoen eta “Urumea unean-unean nola igotzen zen” ikusi zuen. Hurrengo egunean gertaturikoaz idatzi zuen: “Minutu gutxian bere ibilgutik ateratzen hasi zen Urumea eta inguruko lur guztiak estali zituen. Karabeleko zubitik atera behar izan nuen, ibaiak zubiaren bi aldeak urez estali baitzituen”.

Bizilagun asko abereak ukuiluetatik salbatu nahian hasi ziren. Luis Elola hernaniarrak ere arriskuan ikusi zituen bere jabetzak, eta etxera igarotzeko Karabeleko zubia gurutzatu nahian urak eraman zuen. Izan zen hura laguntzeko bizia arriskuan jarri zuenik, baina Luis desagertu egin zen.

Igo bezain azkar egin zuen behera berriro ere erriorean mailak. Urak bere tokira bueltatu ziren arren, uholdearen arrastoek egun asko iraun zuten Urumea bailaran, eta urteak, egun hori bizi izan zuten herritarren gogoan.

Biharamuna: amuarrainak erriberako putzu-zuloetan


Uholde osteko egunean Goizuetako alkateak agiria idatzi zion Nafarroako Gobernadore Zibilarari: “Abere asko

zihoan Hernanira bidean: zuhaitzak, abereak... aurrean harrapatzen zuen guztia arrastaka zeraman. Antoniok gogoan du, garai hartan Goizuetan telefono bakarra zegoela. “Hernanira deitu omen zuten, urak hazita zihoazela eta kontuz ibiltzeko. Hernaniarrek, ordea, han eguzkia zela... gero sinetsiko zuten, noski”.

Errio olatua bezala

Manuel Garayarren aitak Hernaniko Lastaolako zentralean egiten zuen lan, Goizuetatik 26 kilometrora. Eta han-

pean igotzen hasi huen errioa. Ordu betean urak baserriko kupel guztiak dantzan jarri zizkian eta justuan-justuan ez huen iritsi



ERREPIKATU AL DAITEKE ANTZEKO FENOMENORIK?

Lainoa lehertu zuen eremua oso mugatua izan zen. Lekukoen esanei kasu eginenez, 5.000 Ha-ko zabalera izango zuen. Goizuetako herrian bertan elizaz behetik dagoen Olaberriko erreka ez zen mugitu ere egin. Ordea, elizaz goitik urrutia gotik datorren Zumarresta eta gertuago dagoen Urdiñola errekek esaterako, zeharo haziak zetozen.

Testigantzen arabera, Urdiñolan gertatutakoak azaltzen du zergatik joan zen ur-kolpea edo olatua Urumean behera. Jose Antonio Apezcheak ere hala kontatzen du: "Euria ikaragarri bota zuen eta erortzak edo ur-jauziak izan ziren. Urdiñola erreka txikiaren ertzean gatzainaren enborrak ziren moztuta eta paratuta. Erortzak enborrak goitik behetik hartuta, Leitzako mugan den zubi txikira eraman zituen eta zubi hura trabatu gatzainondoekin. Atzetik etorritako adarrek, lurra eta orbelak uraren pasadizoa itxi zuten. Orduan bazter guztiak, denak, urak hartu zituen".

Euskal Herriko beste lekuetan ere bizi izan dituzte antzeko fenomenoak. 1913an, esaterako, Baztanen, Bidasoa ibaian 12 metro zabal eta 5 luzeko olatua sortu zen; bertako herri eta inguruetan hemezortzi zubi birrindu eta bi emakume

hil zituen. 1915ean berriz, Legazpin, Aizkorin lainoa lehertu, eta urak kalte handiak sortu zituen herrian eta inguruetan.

Fenomeno meteorologiko asko errepikakorrak izan ohi dira. Ganix Esnaola Aldanondo EHUKo ikertzailea eta irakaslea den atmosferaren fisikariak bere iritzia eman digu gertatu zena kontatzeko, eta berriro ere gertatu ote daitekeen argitzeko:

"Uholdea, azken finean, fenomeno meteorologiko baten emaitza baino ez da. Kasu honetan seguraski aurreko egunetatik zetorren ezengorkotasun egoera batetik garatutako ekaitz konbektibo bat izan zela dirudi, oso lokalizaturia eta litro asko askatu zituena Goizueta inguruan, oso denbora gutxian. Posible al den errepikatzea? Meteorologian halako fenomenoekin probabilitateaz hitz egiten dugu, eta bai, dudarik gabe aukera badago berriro ere halako edo antzeko episodio meteorologiko bat gertatzeko. Galdera, ordea, ez da gertatuko den ala ez, baizik eta zein maiztasunekin gerta daitekeen. Hori erantzuteko nahikoa daturik ez dugu oraindik. Hala ere, gertatuta ere inork ezin du ziurtatu ibaiak erantzun bera izango duenik. Garai hartako Urumearen ezaugarriak eta egungoak ez baitira berdinak."

itota hil dira, labore asko suntsituak, herriko hiru zentral lohiak estaliak, etxeak urez beteak eta eliza aintzira bihurtua. Momentu honetan herria urik, argirik eta telefonorik gabe dago. Itxita daude Leitzarako bidea eta Hernanirakoa, herria guztiz isolaturia geratu da: 4 milioi pezetako galerak izan dira. Herriarrak zerbitzu guztiak osteria ere martxan jartzeko ahaleginetan ari dira, bai eta zentralak garbitzeko lanak egiten ere."

Jose Antonio Apezchea ere ibili zen zentralak garbitzeko lanetan. "Uholde hori batzuentzako txarra zen, baina gu bezalakoentzat, ona. Jende asko zen orduan lanik gabe, eta jornalak oso baxuak ziren". Gogoan du Goizueta eta Leitzar artean zazpi puntutan puskatu zela errepedea. "Hilabeteko jorrala 16 pezeta gehi soldata bazen, uholdearen ostean bost duro ordaintzen hasi ziren egune-

ko; sekula harririk ikusi ez zutenak ere harginak ziren orduan". Goizuetarrak eta Leitzarrak ibili ziren konponketa lanetan baita aranaztar eta lesakarrak ere, "denentzat jorrala bazen orduan".

Hernani inguruan ere ez zen nolanahikoa izan biharamuna. Manuel Garayarren erriberan landaturiko lupulu eta uzta guztiak galdu ziren. Arreta deitu ziona, ordea, elektrizitateko posteen kontra zegoen egur pila zen, "meta bezala, baserrirako urte osorako egurra bildu genian". Sekula ahaztuko ez duena, ordea, erriberako putzu-zuloena da: "Ura jaitsi huenean, putzuak geratu hituen punturik baxuenetan, eta putzuetan amuarrainak! Eskuz harrapatzen ibili ninduan", kontatu digu barrez.

Karabel auzoan goiza tristeagoa izan zen. Luis Elolaren gorpua errio ertzean azaldu zen goizeko lehen orduan, itota. ■

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



Oihaneder euskararen etxea

• Irailak 23, 10:00-19:00

IZAN MEDIA TAILERRAK

Kartelgintza, irratigintza, bideogintza, argazkilaritza, sare sozialak eta prentsa lizen-ematea: halabedi@gmail.com

• Irailak 26, 19:00

ATERAMINEZ

Begi belarri zikloa

Ikus-entzunezkoa

• Irailak 27, 12:00 (EHU)

19:00 (Oihaneder)

BEGIRADA KONPARATIBO BAT EUROPAKO HAINBAT HIZKUNTZA- ESPERIENTZIARI Urtzi Urrutikoetxea

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituen zikloaren

2017/2018 ikasturteko aurkezpena

• Irailak 28, 19:30

OSO FAN

Eskilarapeko Soinuak zikloa
Musika

Zu euskalduna zara, inguruan, ordea, euskara ez dakien edo maila hobetu nahi duen norbait izango duzu. Lagundu iezaguzu ikasteko zenbat aukera duen zabaltzen eta animatu ikastera.

• EUSKARA IKASTAROAK GIZARTE ETXEETAN

Matrikula: irailaren 1etik 13ra

Info +: www.vitoria-gasteiz.org/euskara

- Gurasoentzako ikastaroak
- 55 urtetik gorakoentzako ikastaroak
- Atzeritarrentzako ikastaroak
- Merkataritza eta ostalaritzako langileentzako ikastaroak

• VITORIA-GASTEIZKO EUSKALTEGIAK ETA EUSKARA IKASTEKO ZENTROAK

IKA 945 15 43 41 ika.euskaltegiak.eus

AEK 945 25 24 00 aek.eus

UDABERRIA 945 22 34 33 udaberria.org

HEGOALDE 945 28 41 96

hegoaldeuskaltegia.wordpress.com

BAI&BY 945 15 71 10 baiby.com

MONDRAGON LINGUA 945 15 01 55

mondragonlingua.com

Maite duzun
hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GENEROAK BANANDUTAKO ERRESUMAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Vincennes (Frantzia), 1328ko otsailaren 1a. Karlos I.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa, Kapeto etxearen azken erregea, hil zen. Frantziarrek *ederra* ezizena (Charles *le Bel*) ipini zioten, nafarren-tzat, aldiz, Karlos *burusoila* zen (batak ez baitu bestea kentzen). Baina hil zenean ilerik eza ez zen arazoa, gizonezko oinordekorik eza baizik. Karlosek bi alaba utzi zituen eta hirugarrena bidean zen; Joana Evreuxekoa alarguna, erregearen hirugarren emaztea, haurdun zegoen senarra hil zenean, baina aurrerago beste neskato batez erdituko zen. Lege salikoa medio, Frantziako oinordeko zuzenenez ezin zuten aitaren tronuan eseri.

Lege salikoa franko saliarren lege kodea zen –hortik zetorkion izena–, V. mendean bildutakoa eta ondorengo mende askotan indarrean egon zena, zatirik ezagunenean, monarkiaren oinordekotza arautzen zuenean, behintzat: emakumeek ezin zuten erregetza eskuratu. Saint-Germain-en-Layen bilduta, hildakoaren gizonezko senitarteko gertuenekoen artean aukeratu behar zuten monarka berria. Hauek ziren hiru hautagaiak: Eduardo III.a, Ingalaterrako errege izendatu berria eta hildakoaren iloba, amaren aldetik; Filipe Valoisekoa, Karlosen lehengusua aitaren aldetik; eta Filipe Evreuxekoa, hildako erregearen iloba Joanaren senarra.



Ezkerrean, Karlos I.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa. Alboan, Filipe VI.a eta Joana Burgundiakoaren koroatzea 1328ko maiatzaren 29an.



Lehen hautagaia behintzat kanporatu nahi zuten frantziarrek, Ingalaterrako koroak Frantziakoa xurga ez zezan. Horretarako 1302an lehenengoz bildutako Estatu Orokorrak berriro elkartu ziren eta oinordekotza legea aldatzea erabaki zuten: emakumeek lehenago ere ez zuten erregetza lortzeko aukerarik, baina oinordekotza transmititzeko eskubidea ere galdu zuten arau berrituaren eraginez. Hala, Filipe Valoisekoak bakarrik betetzen zuen eskakizuna eta hura izendatu zuten Frantziako errege.

Nafar agintariak ere Karlos I.a hil eta berehala bildu ziren oinordekotza erabakitzeko. Generoagatiko mugarik gabe, Karlosen iloba eta Luis Hutinen (Luis I.a Nafarroakoa eta X.a Frantziakoa) alaba

Joana izendatu zuten Nafarroako errege-gina. Eta horrenbestez, Nafarroako eta Frantziako koroak banandu ziren.

Baina ez zen hura oinordekotza lege baztertzailaren ondorio bakarra izan. Ingalaterrako erregeak ere ez zuen onartu izendapena, eta legea iruzurtzat jo zuen. Haren kezka ez zen Nafarroako Joanaren edo Karlosen alaben patua. Filipe IV.a Frantziakoaren gizonezko iloba bakarra zen Eduardo III.a eta beretzat nahi zuen Frantziako koroa. Eta koroa jantzi ezean, Frantziaren aurka egiteko aitzakia zeukan. Frantzia eta Ingalaterraren arteko ezinikusia aspaldiko kontua zen, baina, azkenean, Nafarroaren eta Frantziaren arteko lotura dinastikoa hautsi zuen erabaki hark berak piztu zuen Ehun Urteko Gerra. ■



PARKER & COWARD

Sekula erregistratutako hotsik ozenena

1888ko abuztuaren 27an, Krakatoa sumendiak eztanda egin zuen Ekialdeko Herbeheretar Indietan, egungo Indonesian. Eztanda handik 5.000 kilometrorara ere entzun zen, planetaren hamahirurenean edo, bestela esateko, lurrazal osoaren %7,7an.

Burrunkak airearen presioan eragina izan zuen eta Bataviako (egungo Jakarta)

gas fabrika bateko barometroak erregistratu zuen astindua. Merkuriok 6,5 zentimetro egin zuen gora eta horrek esan nahi du zarata 172 dezibelekoa izan zela. Mailu pneumatiko batek 100 dezibeleko hotsa egiten du eta erreakzio-motor batek 150ekoa, soinua jatorrian bertan neurtuz gero. Baina gas fabrika hura Krakatoatik 160 kilometrorara zegoen. ■

Sagarrondo hilezkorra



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Sagarrak paradisutik bota omen ginetuen, baina sagardoa eman digu, beste paradisu bat. Hori pentsatuta ekin zioten Joy Doumisen eta Jeremy Hammondek beren asmo lurtarrari: Malus Immortalis. “Malus” sagarrondoaren izen zientifikoa da, eta “immortalis” hitzak hilezkorra dio. Baina nondik nora izen bikoitz hori? Brooklynen gauzatu dute ekimena: bertan behera utzitako hilerri zahar batean dauden sagarrondoetako fruituekin sagardoa egitea. Green-Wood izena du 1838ko hilerriak, eta garai hartakoetakoa da, parke gisara eraikitzen ziren haietakoa. Ikaragarria da, ia 700 golde ditu.

Ibilaldi batean topo egin zuten sagar geza batekin, kosk egin orduko ahotik jaurtitzeko gogoa ematen duten horietakoa, hau da, sagardoa egiteko egokietakoa. Hortxe hasi zen sagarrekin eta sagardoarekin haien amodio kontua.

150 sagarrondo aldaera edo mota baino gehiago omen daude bertan. Eta berriak landatzeari ekin diote, baita lehen-



Joy Doumis eta Jeremy Hammondek Brooklynko Green-Wood hilerrian hazitako sagarrekin egiten dute sagardoa.

CHRISTIAN JOHNSTON

dik badiren sagar makatz edo sagarmin asko ere. Bi mendean eraiki diren mausoleo eta estatua tartean etengabe berritzen eta birsortzen ari den sagasti galanta! Milaka lagun bizi izen historien artean...

Aldaerak era batera eta bestera nahasiz, mota askotako sagardoak egin dituzte, eta hilerriko katakunbetan ontzen jarri. Bertan auzolanean egiten diren ekimen ugarietan ederki baliatuko dituztelakoan... Sagardo horietako batek “Paradisus” du izena. Sagarrondo horiek loreak eman ditzaten erlezain bat ere

bada, bere eultzeak hilerrian dituen. Eztiaren izena “Hemendik atzerako gozoa” da.

Hilerrian bertan soilik edaten dituzte sagardo horiek. Apartsuak direnez, botilak irekitzean zurrutada bat lurre-ra erortzen da. Sagarrondoaren sustraiei bueltan emandakoa. Hemen bezalaxe, edandakoan edalontziaren ipurdian geratzen den kondarra lurrari bueltan ematen zaion eran.

Beti esan izan dut: nire gorputza sagardotarako sagarrondo baten azpian ikusi nahi dut. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Aupa Jakoba. Aurten sartutako sagarrondoei zorriak edo “pulgoiak” izugarritzeko kaltea eragin diete. Zer bota-tzea aholkatuko zenidake?

Xanti Aranburu (Ereñotzu)

Aupa Xanti. Bai, aurten bada zorriak! Kontuz simaurra-ekin edo nitrogeno asko duen ongarriketarekin, horrek

ikaragarri laguntzen dio. Zorriaren aurkari onak amona mantangorriak eta krisopak dira. Erosi eta zabaldu daitezke. Ondorengo landare hauen urak erabili: intusua, izpilikua, tomatea, larranbiloa, bortusaia, mota-belarra, baratxuria, garoa, asuna, azeribuztana, zolda-belarra eta, batez ere, tabako-belarra. Horien urei beti xaboia erantsi, ahal baduzu xaboi potasikoa. Tratamendua hiritan errepikatu, zortzi bat eguneko tartearrekin.



JOSÉ BALLARIN



Araizko zaporeak berpizten



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIAK: ARAIZKO ZAPOREAK

Malloen itzalpeko paraje ikusgarrian dago Araizko bailara, Nafarroako iparraldean. Bertan sortu berri dute "Araizko Zaporeak" sor-marka eta proiektua, bailara bultzatzeko asmoarekin. Herriak husten ari zirela eta nekazaritza estentsiboaren erruz jarduera hori galtzen ari zela ikusita, herritarrak elkartu eta "Araitzen lan eta bizi" batzordea sortu zuten lehenik. "Azken urteetan gailendu den nekazaritza estentsiborako joerak baserri gehienak hustea eta lur guztiak gutxi batzuen esku gelditzea ekarri du. Herri hauen etorkizunari begira ez da bideragarria eredu hori", azaltzen du Maider Agirrebarrena proiektuko kide eta Araizko zinegotziak.

Lurren poltsa

Bailarako lurren poltsa egitea da ekimenaren asmo nagusietakoa orain. Populazioaren gehiengo zaharra dela jakinda, gerora begira jende gaztearentzat zer lur aukera egongo lirakekeen aztertu nahi dute. Bertako lurren inbentario modukoa egitea da ideia. "Jende gaztea bertara hurbiltzea bultzatu nahi dugu, hemen lanean hasteko aukerak ematea", dio Agirrebarrenak.

Inguruko baserritarrei hauspoa ematea ere badu helburu Araizko Zaporeak ekimenak, sor-markapean bilduz bertan

ekoizten diren produktuak. Ideia horren baitan ari dira antolatzen urri amaieran egingen den Araizko produktuen azoka ere. Bailarako turismoa ere bultzatu nahi du proiektuak. Logo edo marka beraren atzean, beraz, bailararen aldeko ekimenak bildu dituzte.

Kable sistema zaharra berreskuratzeko

Ekainaren 25ean egin zuten Intzan Araizko Zaporeak sor-markaren festa. Juan Gorriti artistak proiektuarentzako egindako logoa aurkeztu zuten bertan. 45 urte inguru geldirik zeramatzan belar kablea martxan jartzeko aprobeztatu zuten eguna. "Bazen kableen sistema oso bat Malloetatik behera belarra botatzeko. Garai hartako jendearekin lanean lortu genuen horietako bat martxan jartzea", azaldu digu Agirrebarrenak.

500 metro inguruko kablea jarri zuten martxan festa egunean, baina ba omen dago ia bi kilometroko beste kable bat Malloetatik jaisten dena. "Polita litzateke aurrerago egun bat egitea hori ere martxan jartzeko", dio zinegotziak. Bitartean, pausoka eta poliki, baina jarraituko dute lanean. "Bailara urteetan utzia edo ahaztua egon da nolabait. Orain, baliabideak erabiltzea da gakoa, bailara berpizten hastea". ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean Iruñean: Olio dastaketa

19:30ean, "Descalzos" igogailuko eraikinean.

Irailak 1: Plentzia CXXV. Azoka

Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta.

Irailak 2: Donostia Sagardoa eta tomatea

Konstituzio plazan XXXII. Sagardo Eguna. Boulevardean, berriz, nekazaritza ekologikoko produktuen erakusketa eta salmenta eta Gipuzkoako bertako tomate aldaeren lehiaketa eta dastaketa.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

TRIBIAL FEMINISTA

1

Gizon-emakumeen historia osatzeko jolasa

Tribial feminista honetan, Kirola, Historia, Geografia, Arte eta Literatura, Zientzia eta ikuskizunen esparruan emakumeek egindako ekarpenen inguruko 1.200 galdera topatuko dituzu. Emakumeek jakintzaren eta bizitzaren hainbat eremutan egindako ekarpenak islatzeaz gain, feminismoak teoria politiko gisa eta XX. mendeko funtsezko mugimendu sozial gisa egindako bidea erakustea da jolas honen helburua. Tribial honekin jolastu, ikasi eta gizon-emakumeen benetako historia osatu ahal izango dugu; ez beti kontatzen digutena, emakumeen ikuspegi ere kontuan hartzen duena baizik. ARGIAko jendearen artean bi mahai-joko zozketatuko ditugu irailean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARRASATEKO EMAKUME TXOKOA

ARRASATE, BASAURI, ERMUA, ONDARROA ETA ZIERBENAKO UDALETAKO ETA URIBE KOSTA MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN SAILEK SUSTATU ZUTEN 2010EAN.

(+34) 943 794 139 / emakumetxokoa@arrasate.eus

#feminismoa
#aisialdia
#hezuntza
#jakintza

Iraileko sariak

1



Tribial Feminista
2 mahai-joko

2



Txakur Gorria
2 liburu

3



Zein da Zein?
Elefante Txuria diskoa
5 CD

4



Joxemi Zumalabe
3 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Ongi etorri Adur Larrea



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

Hiru, bi, bat... eta hasi da asteroko mar-
txaren lasterketa! Eta noski, denoi gus-
tatzen zaigu oporretatik bueltako lehen
lanegunean nobedadeez enteratzea, ezta
irakurle? Pare bat berri behintzat iritsi
dira nire belarrietara, eta baten bat pol-
tsikoan gordeko dut hurrengorako, baina
lehenengoa ezin isilik gorde eta botako
dizut (lehenago ikusi ez baduzu behin-
tzat sorpresa izango da!). Komiki tira
berria aurkeztu du ARGIAk ale honekin
batera. Adur Larrea da egilea, eta astero
astero aldizkari honen Panorama atalean
izango duzu bere umorea dastatzerik.

Nik bitartean ezin eutsi tentazioari eta
galdera txiki batzuk egin dizkiot Larreari
ARGIArako bere saltoaz. Ez da ilustrazio
munduan hasi berria kolaboratzailea,
eta ARGIArekin ere eginak ditu lehendik
lan batzuk; hala nola Asisko Urmene-
tarekin eta Mattin Irigoienekin batera
Okatxu komikiaren sormen lanetan aritu
zen, baita ARGIAren 90. urteurrena os-
patzeko antolatutako "bertso-zirimarra"

emanaldian ere. "Zer da Adur Larreak
astero irakurleari eskainiko diona?" Gal-
detu diot, eta hemen bere erantzuna:
"Egunero, hainbat mediok egia konta-
tzen digute. Eztaba daezina den ikus-
molde bat, nahitaez jaso behar diren be-
rriak, gizarteak ezagutu behar dituen
albiste absolutuak... Beste era batez uler-
daiteke informazio hori guztia? Tira, ho-
rri erantzuten saiatuko naiz nire ma-
rrazki umilen bidez. Humanitateari nire
zalantzen eta kezken zirriborro ulerga-
rri bat igortzen ahaleginduko naiz".

Zergatik onartu du, ordea, Adur La-
rreak ARGIAren eskaintza? "Beti gus-
tatu zaizkit era guztietako gaiak eta
problematikak ikuspuntu kritiko eta
sintetiko batetik jorratzen dituzten ma-
rrazkilariak. ARGIA adibidez, Asiskok
umore fin bezain gupidagabe horrekin
langa oso altu jarri du bertan eman di-
tuen urte hauetan guztietan. Langa ho-
rren gainetik igarotzea oso zaila denez,
agian inguratzen saiatuko naiz...". ■

ARGIAko kide egiterakoan eman dituzten arrazoiak

*"Gaur egun, Euskal Herriko
agertoki mediatikoan
euskaraz argitaratzen
den hedabiderik
ezkertiarrena eta
gizarte-mugimenduetatik
gertuen aritzen dena
delako"*

Daniel Escribano Riera,
Palma Mallorca (Balear Uharteak)
ARGIAkoa

Sarean arrantzatuak

Iker Tubia

@ikertb

Iruñera bueltan sorpresa polita
jaso dut. Udan lasai irakurtzeko
@argia-ren Aktualitatearen
Gakoak



Uztaileko sarituak

- **Siroka diskoa:** David Gonzalez (Valen-
tzia), Blanca Calleja (Gasteiz), Roberto
Kerexeta (Elgoibar), Mikel Arrazola (Do-
nostia), Leire Arano (Zumaia).
- **Beduino bat Karibe aldean liburua:**
Karlos Zarraga (Zaratamo), Iñaki Martin
(Irun), Erreterriako Auzolan elkarte
(Erreterria), Ixiar Lujanbio (Hernani).
- **Bazkaria Bilboko Kafe Antzokian:**
Pablo Perez (Iruñea), Arrate Larruzea (Bilbo).
- **Ekologistak Martxan DVD-a:** Maider
Irizar (Gasteiz), Iñaki Urrutxurtu (Antsoain).

Biba errepublika



1789ko uztailaren 14an Parisko Bastille kartzela erori zen iraultzaileen kolpeen ondorioz. Hori da behintzat kontatzen den historia. Luis XVI erregeak egun hartan, bere egunkarian ezer ez zela gertatu idatzi zuen. Euskal Herriko pentsalari eta arduradun politikoak mugimenduaren alde agertu ziren lehen urteetan, baina laster, apez eta jauntxoek eraginez, jendalde gehiena Iraultzaren aurka altxatuko zen.



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Iraultzaren ehungarren urteburua ospatu zenean, bi bertsolarik beren ikusmoldea plazaratu zuten. Elkarren parean aurkitu baldin baziren, bata funtzionarioa beraz gorria, eta bestea apezaz beraz zuria, ziur aski pataskatuko ziren. Kopla luzeak direla medio haziko zen elkarrizketa Jan Batista Otxalde (1814-1897) bidarraitarra eta Grazien Adema-Zaldubiren artean. Lehena, orain erran genezake ezkerrekoa, bigarrena aldiz apezgoan sartua zen, bonapartista, *Eskualduna* (1887-1944) astekariko kidea ere zena.

*Orai dela ehun urte,
jarri zen Errepublika.
Geroztik hemen dabila,
guri hurbil itzulika.
Estimatu behar dugu
haren azken bisita.
Orai anai ezarri gaitu:
hau dugu lege polita.*

Otxalderen hamabi bertsoetan Errepublikaren laudorioak baizik ez ditugu aurkitzen. Entzun dezakegu berehala Zaldubiren errefera, ironikoa, jorraztailea, elizaren doxa isurtzen digula:

*Lehengo denboretan Errege batto zen:
Orai denak errege hori da hori zuzen.*

*Dugun errepika
Biba Errepublika!*

*Ni ere errege naiz, baina ez aisian!
Bertzeak gainian eta ni beti azpian.*

...

*Errepublika hortan ez zaiku itsusi
Parisko xanfarinak baititugu nagusi.*

...

Bi bertsolariek, aho batez *Biba Errepublika* oihukatzen dute, baina hitzak ez doaz edukiz norabide berera: eleak antzekoak izanagatik Zaldubi kontra zegoen (1876an) eta Otxalde alde (1889an). Gaurko Frantziako eskuinaren eta ezkerren arteko eztabaidetan duela berrehun urteko gaiak daude oinarrian. Duela gutxi arte, ezen Macronekin dagoeneko bi markari politikoak ezabatuak baitira...

Zaldubiren pieza 1876an Urrustoi-ko Anton Abadiaren Lore-Jokoen kariatara plazaratu eta honen paperetan atzeman zen. 1889koak dira Otxalderen bertsoak, Mauleko arrondizamenduan eginiko Etcheverry eta Berdoly hautesien diputatu kanpainaren kariatara.

*Entzun dudak bezain laster,
ezpainez egin dut irri,
Bainan eztut orai artio
hori salhatu nehoi,
Deputatu xuri denik
eztute hartu nahi
Gorriak baizik ez hartzekotz,
gan bedi Murde Berdoly!*

Martial-Henri Berdoly (1844-1905) Uharte Amikuzeko gazteluan erroto ezkerreko politikaria zen, 1889an preseski Baigorriko familia ospetsu baten ondorengoa eta *Eskualduna* astekariaren sortzaileetatik bat zen Louis Etcheverryren (1853-1907) parean presentatu eta galdu zuen. Hauteskundeok ezeztatu ziren elizaren esku-sartzea leporatu ziolako Berdolyk Etcheverryri. Berdoly hargatik, ez zen sozialista iraultzailea eta jabego pribatua defendatzen zuen.

Berehala datoz Zaldubiren III. Errepublikarenganako txistuak. *La Commune* delakoaren (1871) hondar odoltsuetan bermatuz eraiki zen hau, arras antiklerikala eta laikoa. Ez batere gure apez eta jaun handien gustukoa. Emazteei 1944an baizik eman ez zitzairen arren, gizonezkoek erdietsi zuten orduan bozkatzeko eskubidea. Jende arruntak ziritzat zeuzkan Zaldubik, langileak orduko alfer-ziriak deitzen zirelako:

*Bazterretan gizonik ez omen zen lehen,
Eta gizona orai beha zein merke den!*

*Dugun errepika
Biba Errepublika!*

*Podore'ta karguak,
lehen oi zer gauzak!
Orai indarrak ditik ziri baten bozak!*

...

Burla trukulanteaz ziminokatzen du Marxen itzalean jada aztertzen zen klase borroka, sehia eta nagusia bekoz beko jarritz:

*Lehen ez zen bezala da mundua orai:
Ttikia handiari manatzeko da gai...*

...

*Sehiak nausiari: orai guardi'etak,
Errepublikak gaitik berdin egin denak.*

...

*Nausiak erreputa: Errepublikak to,
Hi segurik hagoka bethi berdin asto!*

...

Otxalde Errepublikak laborariei eka-ri aitzinamenduak begiesten ditu. Ez dezagula ahantz Barkoxeko Etxahunek (1786-1862) *Ofizialeena* erraldoi hartan nola azaltzen zuen nekazarien egunerokoa, hogeit bat urte lehenago:

*Orduan deskantsatu
zen gaixo laboraria;
Ez baitzakien oraino
zer zen ogi xuria.
Gogotik landatu zuen:
Biba, lege berria!
Orai bederen izanen duk
errekoltaren erdia.*

Argi dago Euskal Herri barnealdeko laborariak ez zirela lan tresnen eta mozkinen jabe, XIX. mendetik hona hala izatea lortu bazuten ere. Lurren jabeak, aristokratik edo etxeko jaun handiak ziren eta Errepublikaren ekinaz, nekazariak alorren emaitzak (etxe-partek) nagusiekin erdizka partekatzen ahalmena eskuratu zuten.

Baina lur lanetik ezin zen bizi eta etxetiar familietako haur parrastak ipar ala hego Ameriketara joaten ziren etorkizun bila. Etxaldeetako nagusiek ere dirua finantzatzeko zihoan kapitalismo industrialaren uhinetan inbestitzeko

aukera zeukaten: baserriak, halaz, sosa zuten etxetiarrei saldu zizkieten, enkan-tean eta kandela soilen luzeran egiten zirela tratuak.

*Gure aitasoak, hal'ikustia,
etzena pen'ingarri,
Izerditan trenpaturik
bertzen hazten ziren ari.
Beren ñaken saririkan,
ezin galdatu nehoi,
Lege berriak baitzituen
beren herrunkan ezarri...*

Otxaldek gogo onez hartzen du bere aburuaren arabera den Errepublikaren zeregina: esklaboa liberatu zuen, berdintasuna finkatu, *ñak* edo kemenaren saria segurtatu eta jakintzarako bidea zabaltu gehiengo herrikoia rentzat:

*Errepublikan egin lan hunez
orai nahi naiz mintzatu
Gure arbaso eroriak
nola zituen altxatu
Orduko lege berriak
eskuetan baititugu
Hertsatuki konplitzera
entseatu behar dugu.*

*Errepublika jin aitzinean
huna zer zen munduan
Gizona gizonarentzat
esklabo baitzen orduan
Autor batzuek hartu zuten
gauza hau beren buruan
Ikusirik laboraria
zela azken estatuan.*

Autor edo idazle zenbaiten lanetan bermatzen da nekazari jendarteari orokorrean, Errepublikak ekarri onurak gorestekoa. Neurri bateraino Euskal Herrian ez bezala, etxeko jaun-egiturak foruen arabera funtzionatzen zuelako, Frantziako erregeen denborako sozietatea hiru zatitan banatua zen: laborariak *tiers-état* haren partaideak ziren, mailarik apalenekoak. Zergen zama hauen gain zetzan (gabela, taila). Nobleek eta apezek ez zuten zentimorik ordaintzen. Iraultzaren ondotik egoera aldatuko zen aberatsenen gorrotoa sustatuz.

Horrela ulertzen dira Zaldubi apez bonapartistaren isekaz mukurutu koplak. Bere hemeretzi puskako kanta sotilean Errepublikaren tatxak zerrendatzen

» Otxaldek gogo onez hartzen du Errepublikaren zeregina: esklaboa liberatu zuen, berdintasuna finkatu, *ñak* edo kemenaren saria segurtatu eta jakintzarako bidea zabaltu gehiengo herrikoia rentzat

» Zaldubi apez bonapartistak hemeretzi puskako kanta sotilean Errepublikaren tatxak zerrendatzen ditu. Elizaren ikuspuntutik ikertzen ditu guztiak, beti berdin asto egonen den *citoyen* deituriko jendaila arruntaz, bereziki hirietako gorri uherrez, elizak zuen mespretxua azaleratuz

» Errepublikak ez zuen sekula fama onik ukan *Eskualduna* astekariko kazetarien baitan. 1914an kasik 10.000 aleko tirada zuen eta Iparraldeko etxe guztietara iristen zen. Pentsamenduaren moldaketa etengabea egin zuen, egiazko gerla makina ideologiko bat zen

ditu: libertatea (omen), zergak (denentzat orain), fedea (baztertua), soldadutza (bost urte irauten zuena 1872tik hara) eta legea (nahasmenduak sortzen dituzten bozak). Elizaren ikuspuntutik ikertzen ditu guztiak, beti berdin asto egonen den *citoyen* deituriko jendaila arruntaz, bereziki hirietako gorri uherrez, elizak zuen mespretxua azaleratuz.

*Asko gauza lehen
zilegi ez zenik.
Orai zer nahi libre,
bertzek baina ez nik.*

*Dugun errepika
Biba Errepublika!*

*Lehenengo sinesteak utzi baititugu,
Nihundik orai nori fida ez dakigu.*

...

*Lehen zerga eta orai kontribuzione,
Noiz larrutuko nauten beha nago erne.*

...

*Lehen ginenak gure odolaren jabe,
Orai oro soldadu, gerlarako gare.*

...

*Gu baino goragotik lehen manatuak,
Geroni gare orai legegiletuak.*

...

Errepublikak, sustut burgesez ku-deaturiko hirugarrenak (1870-1940), ez zuen sekula fama onik ukan *Eskualduna* astekariko kazetarien baitan. 1914an kasik 10.000 aleko tirada zuen eta Iparraldeko etxe guztietara iristen zen. Pentsamenduaren moldaketa etengabea egin zuen, are gehiago 1905eko Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa traumatikotik landa. Egiazko gerla makina ideologiko bat zen. Jendarte horrek, 1941etik hara alemaniar okupatzaileekin kolaboratzen bukatuko zuen.

Anartean, Otxaldek konbikzioz eta Zaldubik mendekuz, bakoitzak bere maineran, guri ere *Biba Errepublika* aldarrikatzeko aukera ematen digute. ■

ZABALTEGIK BERRIZ AURKITU DU BERE BIDEA

Bere izaera berreskuratzeko lanean ari da Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi saila, zenbait urtez beste jaialdietan nabarmendutako perlekin espazioa konpartitzearen eraginez apur bat desitxuratuta geratu ondoren.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Bide zinematografiko berriak bilatzen dituzten filmetan fokua jarrita, eta Tabakaleran egoitza hartuta, iazko Zinemaldian argi geratu zen apustu arriskutsuak egiteko prest dagoela Donostia sail horretan –Lav Díazen *Hele Sa Hiwagang Hapis* programatu zuten besteak beste, 8 orduko metrajea duen film historiko-fantastiko bat–.

Formulak funtzionatu zuela dirudi: uztartu ziren kultuzko zuzendari eza-gunak (Jarmusch edo Tavernier 2016ko edizioan) eta talentu gazteei ateak zabaltu zitzaizkien, tartean etxeko publikoaren arreta bereganatzea lortu zuten Maria Elorza/Maider Fernandez Iriarte tandemak (Las Chicas de Pasaik gisa ezagunagoak) edo Koldo Almandoz. Aurtengorako bizkar hezur horrek bere horretan jarraitzen duela dirudi. Sail Ofizialean zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zuen Hong Sang-soo korearrak aurten estreinatu dituen hiru filmetatik azkena ekarriko du Zinemaldira, *Geu-hu*, zeina Cannesen lehiatu zen kontatuz emakume baten



Cannesen saritutako *'The Square'* ikusi ahalko da, besteak beste, Zabaltegi-Tabakaleran.

lehenbiziko laneguna, nagusiarekin harreman sentimental bat zeukan beste langile bat ordezkatzuz.

Beteranoen bandoan beste bi zuzendari esperientziadun konfirmatu dituzte abuztu bukaeran: Raymond Depardon *12 jours* eskainiko dute Zabaltegi-Tabakaleran, planteamendu berezia duen filma inondik ere, kontuan izanda zuzendariak kameraz grabatu dituela zentro psikiatrikoetan ingesatuta dauden pertsonen epailearen aurrean egiten dituzten deklarazioak, filmean gurutzatuz haien historial medikuak, osasun arloko profesionalen iritziak eta jukeen azken epaiak. Bestelako proposamena dirudi Frederick Wisemanen *Ex Libris: New York Public Library* filmak. Haren ibilbidean beti nabarmendu izan da kanpo-behaketa dirudien estiloa, lehen itxuran obserbazio hutsaren antza izan dezakeena, baina egitura narratibo bat aurkitzen duena. Institutuzioak errodatzen ditu Wisemanek eta, kasu honetan, “munduko jakintzaren instituzio handi” batetik abiatu da. Veneziako

jaialdian lehiazetik etorriko da Zinemaldira.

Konfirmazio horiekin osatu da orain arte Phillippe Garrel izen nagusien artean zeukan saila –frantziarraren *L'amant d'un jour* Zinemaldian izango zela abuztu hasieran jakin zen–, Cannese-ko Urrezko Palma irabazi zuen Ruben Östlund-en *The Square* ikusteko parada emango duena.

Baina ezagunak diren zuzendarietaz gain, Zabaltegi-Tabakalera sailak begirada berriak deskubritzera gonbidatzen duela dirudi eta, aurretik begiratuta behintzat, izango dira itxura oso interesgarriko ekoizpenak egile gazteen eskutik, hala nola, Filipa César portugaldarraren *Spell Reel*, Ginea Bissauko independentzia borrokaren eta ondorengo periodo sozialistaren zinema militanteko irudiekin osatua; edo *No intenso agora* (João Moreira Salles), Txinako iraultza kulturalaren garaiko irudi amateurren gainean eraikia.

Bestela zine-areto batean ikusteko zailak diren ekoizpenak gehientsuenak. Eskertzekoa da aukera hau. ■

Urteko sorpresa Kataluniatik etorri da

Estiu 1993

Harridura, zoriontasuna, samurtasuna, tristura... sentimendu horien zurrunbiloan sartu naiz. Ez nintzateke gai izango, zinema areto batetik irten ostean "benetako zinema ikusi dut" esaldia azkenekoz noiz esan ote nuen asmatzen. Baina Carla Simón-en lehen lana ikusi ostean, *Estiu 1993* (1993 udara) zutik jarri eta txalotzea besterik ez zait geratzen. Iberiar Penintsulan azken hiru urteetan egin den film onena dela esango nuke eta momentuz, 2017an ikusi dudan lan sendoena.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Ahozabalik uzteko moduko lana egin duen Laia Artigas hasiberriak, Frida izeneko pertsonaia gorpuzten du. Orain dela urte batzuk bere aita eraman zuen birus berberak –ez da zehazten, baina nabarmena da zein birus den–, oraingoan amaren bizitza ere betiko itzali du. Abiapuntu horretatik, Carla Simón-en kamera Fridaren ikuspuntuan kokatzen da eta hortik aurrera etorriko zaion bizitzaren testigu bilakatzen gaitu hasieratik. Bertan egongo bagina bezala sentituko ditugu ezkutuko elkarrizketak, egunsentiko purrustadak, ulermen keinuak, arbuioak edo haur-parkean gertatzen den sekuentzia ahaztezin bat. Filma ohikoa ez den sentikortasun maila batetik igarotzen da etengabe, larritasuna, barrea eta negarra eszena

desberdinetan banatuz. Haurtzaro gogor horren erradiografia hori egiteko, gainera, ez da inongo momentuan sentimentalismo errazean erortzen. Zinemaren hizkuntzak eskaintzen dituen erreminta guztiak modu sotil eta oso eraginkorrean erabiltzen baititu. Planoen egitura perfektu batekin jolastuz eta Victor Erice handiaren pintzelkadak dituen argiztapen naturala erabiliz, momentu batzuetan Frida garela sentituko dugu, baina besteetan aldiz, bere familia berria. Ama, aita, ahizpa txiki ahaztezin hori. Ez dago manikeismoetarako tokirik, tragedia batetik loratu den eta giza-erlazioek eskaini diezaguketen konplexutasun horretarako ordea bai.

Telefonoaren sekuentzia latza adibidez. Sinplea dirudi, bai, inuzentea,

baina pertsonaia nagusiaren barrenean, inflexio puntu bat markatuko du. Bi ume, telefonoarekin jolasean, galdu berri duen amaren etxera deika. Tonu bat bi, hiru... bost... telefonoaren beste aldean ez dago inor. Sei urteko ume horrek ez du erantzunik jasotzen. Tonuak isiltasunean galtzen dira; neskak ez du telefonoa inongo momentuan askatzen. Hitzik ez, negarrik ez, keinu txiki bat soilik, baina momentu horretatik aurrera Frida beste ume bat izango da. Beno, berbera, baina errealitateaz geroz eta kontzienteagoa den umea. Bere gurasoak ez ditu sekula berriro ikusiko eta Bartzelonan zuen bizitza betiko amaitu da.

Victor Erice aipatu dut. Baina ez estetika natural horrengatik bakarrik, edo



protagonista baserri-girora moldatu beharko den umea delako; 1973ko *El espíritu de la colmena*-ren pintzelkadak dituen kontaketa zoragarri hau keinu txikiz osaturiko maisulan bat delako baizik. Eta batez ere, Ericeren lanetan bezala, esaldi txikiz osaturiko egoera xumeek hausnarketa erraldoiak eragiten dituztelako. Gauza garrantzitsu guztiak ez dira hitzen bidez esaten, ikusleak interpretatzen ditu, aipaturiko tresna zinematografikoen batuketa eginez. Umeak “helduak” izatera jolasten; baxoan ezkutaketan ari diren une beldurgarria; bigarren planoan ikusten den koltxoia; ama “berriaren” begiradak; aitona-amonak kotxean doazen unea; eta batez ere amaiera. A ze amaiera. Familia arteko jolas batetik hasita, oilo ipurdia

» Filmaren barruan bageunde bezala biziko dugu Fridari gertatzen zaiona, Laia Artigas aktorearen lanari esker

jartzeko gai den une horretara eramaten gaituzten arte. Berriro ere, hitzik erabili gabe, sentimenduen eztanda. Laia Artigas ikaragarri, sekuentzia horrek eskatzen duen maila aise gaindituz. Aurreko bizitza batean aktore gisa hogei

» Victor Ericeren filmak ekartzen ditu gogora tarteka: esaldi txikiek hausnarketa erraldoiak eragin ditzakete

urte lanean aritu izan balitz bezala. Pantaila belztu eta 96 minutuak pasa direla ohartu naizenean, zinemaren lurrinak airean jarraitzen zuela sumatu dut, eta hori, gauden garaian egonda, gauza zoragarria da. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Yin eta yang



Igor Estankona

Txina, azken laurogei urteotako mila milioi pertsonaren eguneroko mirakulua, Maorena eta Zhou Enlaiena, 7.000 kilometro egin zituen herriarena -80.000 atera ziren, 10.000 eskas iritsi-, Konfuzio eta Leninen eta lau mila urteko historiaren nahaste hori, Txina txikia eta erraldoia, gure garaiko transformaziorik handiena hartu du Beatriz Chivite Ezkietak (Iruñea, 1991) eta liburu bat atara zaio "umamia"-ren antzekoa. Ahaztu betiko mingotsa, gazia, garratza eta gozoa bakarrik dela mundua. Bosgarren zaporea dakar *Pekineko kea*.


Pekineko kea da ingurugiroaren degradazioa gordinen ageri den herrialdeko gandu industria, baina baita poesiaren berezko zetazko gortina argi-irazlea ere: "Limoi zati bat mozten/ gogoratzen dut,/ balkoian etzanda/ eskuan gintonik bat/ eta aurpegian liburua".

Pekineko kea ez da aurtien irakurri dudan tesi burutsuena, ez da azken aldian iritsi zaidan testimonio poetiko bihotz-urragarriena. *Pekineko kea* ez da gau osoan loa galarazi didan irakurketa joria. *Pekineko kea* da aspaldian irakurri dudan liburu fresko, iradokitzaile, interesgarriena. Eta badauka beste bertute bat oso karua dena: entretenigarria da.

Beatriz Chivitek Txinan emandako ikasturtean idatzitako liburu honetan ez datoz hango kontuak bakarrik. Gaingitu egiten ditu hangoa zein hemengoa, kontzeptu duda-mudazko horiek: "Mahuka gabeko kamixeta xuriko gizon zaharrak/ izerditan blai eguzkitan dauden sabelak,/ norantz begiratzen dute begi zorrotz hauek?/ Denboraren urratsetara/ eta eguerdiko siesteta-

Pekineko kea
BEATRIZ CHIVITE

Pamiela (2017)



Beatriz Chivite Ezkietak idazlea
(Iruñea, 1991).



ra?/ Houhai lakuko seietako eguzkira/ edo Txinako aldakuntzetara?/ Metamorfosi eta mutazio ulertezinetara".

Misterio hori da, mutazio ulertezinena, liburu hau berezi egiten duena. Paisaia begiesten duten begien paisaia, apenas iritsi ez den udaberri oraindik izoztua, amorrarazitakoaren etsipena, herrimina... dena kabitzen da, epigrama findu eta birfindu batean lez, Chiviteren poema batean. Zeren irudi unibertsalen poemategi honetan finak eta handiak aurkituko dituzu, biak batera. Gauza itzelek jendeen baitan sortzen duten dardara ia hautemanezina batetik, eta gauza txikien oihartzun biderkatua bestetik. Zintzo dedikatzen die idazleak liburua gai eternoei, edertasunari, amodioari, denboraren tatuaieei, baina gaien pisua igarri barik idazten du haien gainean, ontzia bezala igarotzen da, markarik utzi gabe, itsasoetatik. Bidaia fisikoa barne-bidaia bihurtua, *Pekineko kea* ez da poesia, ezpada bizitza poetizatua. ■

» KONTZERTUA

Publikoaren gustukoa



Montse Auzmendi

Orkestra sendo bat, Donostiako publikoak eza-gutzen duen zuzendaria, egitarau erakargarria. Den-dena puntu-puntu Musika Hamabostaldiari hasiera emateko. BBC Philharmonic Orkestrak ibilbide potentea dauka, honi gehitzen badiogu gure Juanjo Mena zuzendari gasteiztarra zuzendari titularra dela 2011. urteaz geroztik, normala da jendez gainezka egotea Kursaal Auditorioa bi saioetan (batez ere bigarrenean). Emaitza, ona, besterik gabe.

Inpresio izugarria eman zuten lehenengo egunean, kontuan harturik bakarlaria gure Asier Polo biolontxelo-jotzaile bilbotarra zela. Gaur egun instrumentu honetako bakarlari onenetakoa da Polo, dudarik gabe, eta halaxe frogatu zuen Edward Elgar-en *Biolontxelorako mi minorreko op. 85 kontzertua* interpretatzerakoan. Doi-doia baina inoiz koadratua, fraseaketaren malgutasuna mantenduz beti, bertsio nolabaiteko fantastikoa egin zuen, dotorea eta teknikoki bikaina. Propina oparitu zuen Polok: Gaspar Cassadó-ren *Fantasia-suite*-aren *Preludioa*, ederra.

Lehenengo egun honetako bigarren zatian orkestrak txundituta utzi zuen publikoa Berlioz-en *Sinfonia fantastikoa*, op. 14 obrarekin. Menak jakin zuen zati bakoitzaren nortasuna ederki kanporatzen. Orkestraren familia guztiak luzitu ziren lan honekin eta txalo sorta ederra lortu zuten.

Hurrengo eguneko saioak ez gintuen hainbeste emozionatu. Kontzertu bertsioan egin-dako opera ez da erraza, ez interpreteentzat, ez publikoarentzat. Argudioari jarraitzea kon-

Musika

Hamabostaldia

BBC PHILHARMONIC ORCHESTRA

Zuzendaria: Juanjo Mena.

Donostiako Orfeoia.

Zuzendaria: J.A. Sáinz Alfaro.

Bakarlariak: Stuart Skelton,

Ricarda Merbeth, Louise

Alder, Benjamin Hulett,

James Creswell, Detlef Roth,

David Soar.

Kursaal Auditorioa.

Abuztuaren 3 eta 4a.

plikatua egiten da antzezten ez delako. Bestalde, soinu bolumenen arteko oreka mantentzea ia-ia ezinezkoa da orkestra eta interpreteak maila berean daudelako –fosoan dagoenean orkestrak ez du ahotsa “jaten”–. Beraz, ezingo genuke esan saio txarra izan zenik, baina ezta guztiz bikaina ere.

Bakarlarien lana zuzena izan zen. Ricarda Merbeth, Leonore-ren rolean, taxuz aritu zen; Louise Alder-ek, Marzeline-ren paperean, berriz, ez gintuen gehiegi konbentzitu. Bestalde, gizonezko ahots izugarriak izan genituen: James Creswell, Rocco-ren rolean boteretsu eta konbentzigarria aritu zen; Detlef Roth baritonoak txukun egin zuen Don Pizarro-ren papera, eta David Soar baxuak biribildu egin zuen Don Fernando-rena. Azpimarratu behar dut, honez gain, Donostiako Orfeoia-rena, doi-doia. ■



Juan Jose Mena
musika klasiko
zuzendaria
(Gasteiz, 1965).

Autonostalgia ariketa

KARGAK & DESKARGAK

Ikuskizun ibiltariaren azken saioa.

Unai Iturriaga, Igor Elortza,
Josu Zabala eta Rafa Rueda.
Bilbon, abuztuaren 22an.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Dabi Piedra



Josu Zabala musikaria eta Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak lehenetik ere ikusiak genituen oholtzan elkarrekin, 7 Eskale eta Gu Ta Gutarrak taldeen garaian. Uda honetan abiatu duten proiektuan bi fitxaketa egin dituzte: Rafa Rueda eta kartoizko kutxa misteriotsu bat. Herriz herri kutxa hori eramateko aitzakiarekin, Kargak & Deskargak ikuskizunaz gozatzeko aukera eman diote Baionako, Gasteizko, Ondarroako, Lizarrako eta Bilboko publikoari. Bizkaiko hiriburuko Aste Nagusia izan zuten azken geldialdia. Kalek kaleko ibilbidean, adin guztietako entzuleak izan zituzten lagun.

Bi bertsolari tartean egonik, bat-batekotasunik ez zuen falta izan ikuskizunak. Eszenaratzeak ere inprobisatuaren tankera hartu zuen askotan, baina itxura hutsa baino ez da hori, ondo pentsatua eta landua da Kargak & Deskargak. Bestela, ezinezkoa izango zen ia hiru orduz jendea adi-adi segika izatea. Lau protagonistek bikain zukutu zuten beren ibilbide luzean ikasitako guztia eta publikoarekin konektatzen asmatu zuten.

Lehenengo geldialdia Santiago katedralaren plazan egin zuen laukoteak. Han erdian jarri zuten bosgarren protagonista, kartoizko kaxa, Lizarrako saioan batutako opari misteriotsuz betea. Giroa berotzeko, *Sweet home Alabama* doinuarekin kantari hasi ziren Elortza eta Iturriaga, eta doinu hain amerikar hori koplatarako egokia dela erakutsi zuten. Bertsotan maiz aritu ziren, gai ugari ahotan hartuta: Aste Nagusiko ospakizunak, Marijaia, Hontzak konpartsan ertzainak sartu zirenekoa, adar-jotzeak... Kargak & Deskargak beraientzat zer izan zen azaltzeko tartea ere hartu zuten, Bilboko azken saioa zela jakinik. "Kargak eta Deskargak, hiltzekotan inon; Aste Nagusian hil, nahi genuen Bilbon", biribildu zuen bertsoa Elortzak.

Josu Zabala eta Rafa Rueda ez zeuden, ordea, bertsoei musika jartzeko soilik. Mungiarrek ikuskizun honetarako propio sortutako abestia jo zuen eta Josu Zabala iluntze hartako une gogoangarrietako bat utzi zigun: Areatzako zubipeko estuasunean jauzika eta dantzan jarri zuen jendea, Hertzainak taldearen kontzertuen gairaira bueltatu bagina bezala. Pixkana-

ka, tonu nostalgikoa hartzen ere hasi zen ikuskizuna, baina gaurkotasunari begirik kendu gabe. Bunker itxurako eszenatoki inprobisatu hartan "Bilboko euskaldunen babeslekua" ikusi zuen Iturriagak.


Algara konpartsaaren txosnan izan zuen errematea iluntze hartako zitak, doinu zahar eta bertso berrien artean. Geroxeago Bilboko zerua argitu zuten su artifizialek bezala, azken traka bukaeran izan zuen ikuskizunak. "Autonostalgiko" jartzeko baimena eskatu zuen Elortzak eta publikoak gustura hartu zuen proposamena. Euskal kantutegiko abesti ezagunetako esaldiekin koplak berriak josi zituzten, konposizio eder bezain harrigarria izan zen.

Ariketa autonostalgikoak goia jo zuen *Gora Gu Ta Gutarrak* abestiaren bertsio gaurkotuarekin, Xanpe batera jolearen parte-hartze eta guzti. Lizarratik ekarritako kutxa ere ireki zuten behingoan: Ardoa, liburua eta Lizarrako jaietako zapia, horiek ere eman zuten adar jotzerako aukera. Kargak & Deskargak bukatu da, baina asmoa, behintzat, betetzat jo zuen Elortzak: "Ondo pasatzea baino, ez genuen helburu; eta lortu dugu". ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

Gaia: Gipuzkoako hondartzak



Ezker-eskuin:


1. Bilboko Okupazio Mugimendua. **Mutrikuko hondartza hau 920 metro luze eta 50 metro zabal da. Surflariak eta urpeko arrantza gustuko dutenak joaten dira batik bat.** Antzinako bide zabala, estatuaren ondasunaren kontura egina. 2. Ongailu. Geziak jaurtitzeko arma. Alokairu. 3. Ugariak. Filmak proiektatzen diren aretoa. 4. Beldurti. Oholak. 5. Hegazti mota. 6. Minerala. Pausaldi (alderantziz). 7. Oliadura eman. **Oria ibaiaren bokalearen ondoan dagoen Orioko hondartza honek 220 metroko luzera dauka, 1997an berriztatu zuten hareatza, eta 3.500 metro koadro ditu egun.** 8. Trakets, kankailu. Bi ahoko ganibet. 9. Antolatu, konpondu. Energia atomikoa ekoizten den zentralak. 10. Txerriek egiten duten hotsa. Elizan, nagusi baten ordekoa edo laguntzaile nagusia. Tarro, altu.

Goitik behera:

1. Salto, jaiki. Haitzuloak. 2. Zintzo. Kolore hori. 3. Magnesioaren sinboloa. Landare lekadun. 4. Lerde. 5. Ez eme. ...egin, eskaini eta ez eman. 6. Lawrentzioaren sinboloa. **Zumaian dagoen hondartza, 270 metroko luzera du eta San Telmo baselizaren azpian dago. Flysch izeneko egitura geologikoa du.** 7. Egoera estua. 8. Suitzako ibaia. 9. Ondoez. 10. Eraman. 11. Berehala (alderantziz). Altzari hankadun. 12. Bost sentimenetako bat. 13. Itsas arrain izena. 14. Zimur. 15. Abereen ile. 16. Galde partikula. Lotan. 17. **Getariako Arratoia ezizenaz ezagutzen den mendiaren babesean dagoen hondartza, herriaren mendebaldean. Urre koloreko harea duen 210 metroko hondartza honetara surflari asko joan ohi olatuez gozatzera.** 18. Abere-taldea. Interjekzioa. 19. Txartel. Eguzkiaren jainko egiptoarra. 20. Anfibio mota. Radonaren sinboloa. 21. Proba, lehia. Aditza (laburdura). 22. Salgaiak erakusteko prestatzen den leku.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.



5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Ohitura txar.
2. Oinez mugitu.
3. Doilor, zikoitz.
4. Errenkada, lerro.
5. Oiloaren ar heldu.



Ebazpenak

5x5:

1. Bizio
2. Ibili
3. Zital
4. Ilara
5. Ollar

Goitik behera:

1. Bote, Kobak. 2. On, Larru. 3. Mg, Ihar. 4. Adur. 5. Ar.
Tati. 6. Lr, Izurum. 7. Kinka. 8. Aar. 9. Larr. 10. Eroan.
11. Akat, Mahat. 12. Ukimena. 13. Atuna. 14. Izur.
15. Ilek. 16. Al, Lo. 17. Gazetape. 18. Elia. Ah. 19. Bonu.
Ra. 20. Igel, Rn. 21. Dema. Ad. 22. Erakustoki

Ezker-eskuin:

1. BOM, Alkolea, Erregebid. 2. Ongart, Arku, Aloger.
3. Narroak, Zinema. 4. Ikarati, Taulak. 5. Tatin. 6. Mea.
Iat. 7. Ollatu, Antilla. 8. Baldar, Hauze. 9. Arautu,
Nuklearrak. 10. Kurritika, Brikario, Handi.

Marina Sagastizabal. Denboraz jabetzen



Marina Sagastizabal (1989) soziologoaren lanean bat egiten dute kaleko kezkek eta ikerketa akademikoak. Zergatik parte-hartze politikorako eremu formalenetan txikitzen da emakumeen presentzia, haien bizi-zikloak aurrera egin ahala? Sagastizabalek gakoetako bat azpimarratu du: denboraren banaketa.

“Garrantzitsua da bizitzarako tartea utziko duen jendarte bat eratzea”



Uxue Apaolaza

ARGAZIAK: ALEX LARRETXI

Parte hartzeko modu asko

“Elkarriketa sakona egin diet hainbat profiletako hamalau pertsonari, zaintza-esparruan ardura maila desberdinak dituztenei, hiru ibilbide kontuan hartuta: parte-hartze soziopolitikoarena, lan merkatuarena eta zaintza-lanarena. Hiru horien artikulazioa izan da lanaren ardatza, parte-hartzea era zabalean ulertuta. Maiz parte-hartzean pentsatzen dugunean eremu formalenetan geratzen gara, ikusgarrienetan. Horrek eramaten gaitu esatera emakumeek gutxiago parte hartzen dugula, edo ez gaudela parte-hartze soziopolitikoaren eremuetan, baina begirada zabaltzeko behar da. Askotan, hain politikotzat hartzen ez ditugun eremuetan daude emakumeak. Eremu informalekoak dira, ezkutuko lanekin zerikusia dutenak, zaintzari lotuak, eguneroko bizitzari: guraso elkarteak, auzo elkarteak... Bi eremuak dira garrantzitsuak, formalak eta informaleak”.

“Presentzia hirukoitzaz” ari zara zeure lanean. Zer esan nahi du?

Presentzia hirukoitz horrek hartzen ditu etxeko eta zaintza-lanak, enplegua eta parte-hartze soziopolitikoak. Hiru horiek eguneroko bizitzan nola uztartzen diren aztertu dut, tesiaren helburua baita hori lortzeko egunerokoan zer aukera, oztopo eta estrategia dauden ikustea.

Presentzien banaketa hori oso lotuta dago denboraren banaketarekin.

Bi alderditatik aztertu dut denboraren banaketa: kuantitatibotik, inkesten bidez, eta kualitatibotik. Presentzia hirukoitzaren planteamenduak zerikusia du Italiako soziologo batzuen ikerketekin: haiek presentzia bikoitzaz hitz egiten dute. Hau da, emakumeen presentzia hazi egin da lan-merkatuan, baina ez diote utzi etxeko eta zaintza-lanen protagonista izateari. Bi lan hartzen dituzte beren gain egunerokoan, eta hori ez da bi lanen batuketa hutsa, lan horiek koordinatu eta kudeatu egin behar baitira. Eremu batetik bestera ibili behar dute, eta horrek ezinegona sortzen du, ez daukate denborarik beste ezertarako.

Industria Iraultzatik honako garaian kokatu duzu ikerketa.

Bai, baina bereziki Bigarren Mundu Gerraren ondorengo aldian eta Mediterraneoko herrialdeetan. Euskal Herria ere testuinguru horretan dago, ongizate-zerbitzu murriztekoak eta oso famelistak diren lekuen multzoan. Horietan, zaintzaren alorreko politikak oso gutxi garatu dira, ziurtzat jotzen baita lan horiek musu truk egingo dituen familia bat –batez ere emakumeak– dagoela. Interesgarria da Italian 80ko hamarkadan egin zuten lege proiektua, denbora politikaren lehen pausoa.

Zertan zetzan?

Kontziliazio politikak kritikatu ziren eta bizitzaren denboraz hitz egin zuten. Gure jendarte lan merkatuaren inguruan dago antolatuta eta horrek esan nahi du ez dagoela beste ezertarako denborarik. Zaintza eta etxeko lanak ez dira kontuan hartzen, baina ezta parte-hartze soziopolitikoaren denbora ere. Azpimarratu zuten garrantzitsua dela bizitzarako denbora utziko duen jendarte bat eratzea, gure bizitzaren erdigunea lan merkatua ez izateko eta



"Euskal Herria ere ongizate-zerbitzu murriztekoak eta oso familistak diren lekuetakoa da. Horietan, zaintzaren alorreko politikak oso gubxi garatu dira, ziurtzat jotzen baita lan horiek musu truk egingo dituen familia bat dagoela".

gure bizi ibilbidea lan merkatuaren arabera ez antolatzeko.

Zergatik da garrantzitsua Eustatek adibidez denboraren banaketa hori jasotzea?

Eustaten denbora aurrekontuen inkestak 1993tik 2013ra egin dira eta ikusi da erabilgarriak direla etxeko eta zaintza lanen eremua ikusgai egiteko. Krisi ekonomikoaren garaian, adibidez, ikusten da maila sozialean denbora gehiago ematen zaiola etxeko eremuari eta gure ongizatea hein handiagoan datorrela etxeko eremuan ekoizten denetik, lan merkatutik baino. Aldiz, gure imajinarioetan askoz pisu handiagoa du lan merkatuak. Inkesta horien muga handi bat da erabiltzen duten denboraren kontzepzioa hegemonikoa dela, batuketa hutsa. Kantitateaz ari dira, ez kalitateaz, eta zaintzen eremuan oso garrantzitsua da hori.

"Langile txanpiñoia" esamoldea erabili duzu zuk eta erabiltzen du feminismoak. Zer esan nahi du?

Hainbat ekonomialari feministak erabiltzen dute kontzeptu hori, tartean Amaia Pérez Orozcok. Hark dio "langile

txanpiñoia" dela egunero lan merkatura ateratzen den langilea, prestasun osoz. Egunero esnatzen da beharrian guztiak aseta: jatekoa, arropa garbia eta lisatua, segurtasun psikologikoa... Dena bermatuta dauka eta ez du ardurarik lan horiek guztiak egiteko. Badu beste pertsona bat etxean, emakume bat, bere beharrian guztiak bermatzen dizkiona berak lan merkatuan aritu ahal izateko prestasun horrekin. Kapitalismoarentzat ezinbesteko figura da.

Emakumeen helburua ere izan da txanpiñoi izatea.

Bai, kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko ezkontza da, eta sistemak figura hori erreproduzitzera bideratzen gaitu. Mundu guztiak kopia behar ditu eredu horiek. Gainera, parte-hartze sozopolitikoa aztertzean, ikusi dut eremu horretan ere militante txanpiñoia dela protagonista. Normalean gizon bat, patroï berarekin: politikan parte hartzeko prestasun guztia dauka, batzar guztietan egotekoa... Zergatik? Beste pertsona bat daukalako beste beharrak bermatzen.

Eremu horietan badira horri aurre egiteko estrategiak, haurtzaindegiak kasu.

Bai, baina azkenean eredia berbera da. Eta oro har, eremu maskulinizatu edo formalenetan gizonak izan dira protagonista, hein handi batean prestasun horri esker. Eta militante txanpiñoiekin batera ama txarraren figura aurkitu dut: zaintza lanaren inguruko ardurak izanda parte-hartze sozopolitikotik irten ez direnak, presentzia hirukoitz horren protagonistak, hein handian. Oztopo askorekin egin dute aurrera, estigma handia dagoelako oraindik emakume horiekiko. Beren inguru guztiak bultzatzen ditu eremu sozopolitikoan ez parte hartzera, bikotekideak, familiak, lagunek, baita seme-alabek ere. Autoafirmazio esfortzu handia egin behar dute, estigmari eta erru sentimenduari aurre egiteko. Seme-alaba batzuek abandonu sentimendua transmititzen diete ama horiei, ez dute ulertzen zergatik ez dagoen ama, zergatik dagoen batzarretan eta heltzen den hain berandu gauean. Ez da gauza bera gertatzen falta dena aita denean. Horrek erakusten du zer nolako legitimitatea duen militante txanpiñoien figurak gizonen kasuan. ■



Irakasleek trafiko arazoak eragin dituzte lanera bueltan, eskola non dagoen oroitzen ez zutelako

Hainbat kilometroko auto-ilarak izan dira Euskal Herriko institutu eta eskolen inguruan, zenbait irakasleek ez dutelako gogoratzeko lantokia non dagoen eta noraezean dabilta irakaskuntza zentro batetik bestera galdezka. “Hainbeste denbora pasa da lanera azken aldiz etorri nintzenetik, errepideak aldatu dituztela”, esplikatu du Zorion Lapitz lehen hezkuntzako irakasleak Laudiora bidean. Dagoeneko Leioako eta Lesakako eskoletatik pasa da, baina nahiko argi dauka lehen ez zuela hor lan egiten. “Herria ‘L’ letrarekin hasten zen baina, jo, ez dakit”. Fenomenoa ez dela kezkatzekoa esplikatu du Izadi



Txapastegi EHuko Antropologia irakasleak. “Euskaldunen artean hibernatzeko ohitura ez dago oso zabalduta, baina irakasleen espezieak ekaina iritsi bezain pronto egiten du. Normala da hainbeste denbora pasa ondoren esnatzean pixka bat nahastuta egotea”.

SAREAN ARRANTZATUA

Calle/Kalearen sortzaileen bigarren lana

DN. Pamplona.

Un viaje en el tiempo. Es lo que plantea “Orhipeon: oficios y tradiciones” de Ochagavía, una programa previsto para días 25 y 26 de agosto y organizado por Antolatzailea, que implica a toda la localidad pirenaica y que recrea desde los trabajos típicos, la indumentaria, los objetos o la seña-

Hurrengo potea SosDeiaken kontura



SOS Deiak - 112
@112_SOSDeiak

Irun, N-121 74 km tan #trafikoa istripua, moto eta kotxa artean, larrialdieko zerbitzuak lekuan, zuritua Bidasoa ospitalera eramana.

4:48 PM · 23 abu. 17

Zelula jihadistista bat desartikulatu dute EHuko laborategi batean

Ertzaintzak zelula jihadistista bat atxilotu du Leioako campuseko Zientzia Fakultatean, biologia sailean zehazki. Antza, susmagarria hasita zegoen alboko zelula batzuk zitalkeriak eta gauza txarrak egiteko konbentzitzen. “Laborategiko langile guztiak zelulitisez kutsatu eta ondoren euren mitokondriez beste egiteko plan maltzur bat zeukaten, eskerak garaiz konturatu garen”, adierazi du Delitu Bakteriologikoen Unitateko arduradun Bea Mikroskopiotik-ek.

“Hasieran zelula lasaia zen, baina behin fisika laborategira eraman genuen magnetismoa aztertzeako esperimentu bat egitera eta harrezkeroztik asko erradikalizatu zen”, azaldu dute fakultateko iturriek. Zer gerta ere, laborategiko iman guztiak Erandioko komisariara eraman dituzte, aferarekin zerikusia ote duten galdetzeko. “Pena handia dut, txikitatik ezagutzen nuen zelula hori”, esan digu, malkotan blai, Iker Tzaile laborategiko arduradunak.



Platertxo hau ibilgailuak oztopatzeko tramankuluz betetzea aztertzen ari da Ertzaintza.



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com